

ITZALDIAK

SEIGAREN SAĪA

Oġo ta oġotegiak. Uřeta'tar Mikel'en itzaldia.

Erestelkin edo fonografoaren berogei ta amargařen urtebetea. Franzisko Muro'ren itzaldia.

Telefonaoren sortxe ta auřerapena. Ignazio Etxaide'ren itzaldia.

Oraindaņoko euskal-neurtiak. Ormaetxea'tar Nikolas'en itzaldia.

DONOSTI'AN

MARTIN ETA MENA'REN ETXEAN

1930

ITZALDIAK

1'go saia

- 1: Ufeta'tar Mikel: *Edesti-aurea. Leixe xuloak.*
- 2: Rafael Larunbe: *Euskaleriarentzat iru kalte.*
- 3: B. Etxegarai: *Euskaldunak, euskeraz.*
- 4: Garitaonandia'tar B: *Usandixaga. Bere bizitza ta eres-egikuntza.*
- 5: Zinkunegi'tar J: *Eusko-abenda. Bere sendotasuna len, orain eta gero.*

2'g saia

- 1: Donostiar J. A.: *Euskalduna, abeslari.*
- 2: Artetxe'tar I.: *Gure gaitzak.*
- 3: R. M. Azkue: *Domingo Agife, beretergoan.*
- 4: K. Etxegarai: *Domingo Agife olerkari.*
- 5: P. Lhande, S. J.: *Agife irakurgaiikiña.*
- 6: A. Pagoaga: *Ipañagife; bere bizitza.*
- 7: K. Etxegarai: *Euskaleriko itsas-gixonak.*

3'g saia

- 1: Leizaola'tar J.: *Jakintxarako gaitasuna.*
- 2: J. M. Barandiarán: *Eusko-mitolojia.*
- 3: J. M. Olaizola: *Bixente Goikoetxea.*
- 4: J. M. Olaizola: *Bizente Goikoetxea.*
- 5: J. K. Geña: *Gure olerki zar-zafak.*

M-57615
F-58369

AV
27060

ITZALDIAK

SEIGAREN SAĀA

Itzaldi oek. EUSKAL-ESNALEA'k
eratu zituan eta EUSKAL-ESNA-
: : LEA'k argitaratu ditu : :



¡DONOSTIA'N
Martín eta Mena'ren etxean

~
1930



THE A. B. D. L. A. K.

THE A. B. D. L. A. K.

THE A. B. D. L. A. K.

THE A. B. D. L. A. K.

THE A. B. D. L. A. K.

THE A. B. D. L. A. K.



ARKIBIDEA

O'rialdea

<i>Olo ta olotegiak. Ufeta'tar Mikel'en itzaldia.</i>	1
<i>Erestelkin edo fonografoaren berogei ta amargaren urtebetea. Franzisko Muro'ren itzaldia.....</i>	45
<i>Telefonia'ren sortze ta auferapena. Ignazio Etxaide'ren itzaldia.....</i>	75
<i>Oraindañoko euskal-neurtitzak. Ormaetxea' tar Nikolas'en itzaldia..</i>	127

ॐ



URĒTA'TAR MIKEL

OĪO TA OĪOTEĒIAK

1927'G. URTEKO OĪILA'REN


1'EAN IRAKUĪITAKO ITZALDIA




OLIO DI A-OLIO-OLIO

OLIO DI A-OLIO-OLIO

OLIO DI A-OLIO-OLIO





OĪO TA OĪOTEĠIAK

ANDREAK, JAUNAK:

Ara emen ni beñiz. Urte batzuek ba-dira ementxe bertan itzaldi koxkor bat egin nizutela, ta emen naiz bigařen bat egitera.

OĪo ta oĪoteĠiak dakart gaitzat. Nik dakidana gutxi da, baña gaia polita ta jakingaria dan ezkerro, gogoz entzungo didazutela uste det.

Asi nadin bada.

OĪoak azi, txanponak irabazi: egi mardul ta atseginkoia; oraingo estu-aldi auetan battez ere. OĪengatikan, ez uste, ipuia da-ta, oĪoak uĳezko aĳaultzak egiten dituztela. Ala balitz ĳzein uĳearen edertasuna? Pazi zar batena aña ez.

Oĭoak, zuringo ta gofingo^z betetako aġaultzak jartzen dituzte, ta aġaultz oyek azokan saldu ta sakela txanponez betetzen dute.

Gauz eġeza orduan: «txanpon asko biltzeko, oĭo asko».

Ez, ori ez; apalki asi. «Ez du zutikan aldi luzean iraungo ibiltzen jakin gabe lasterka asten danak». Asieran oĭo gutxi, bai, baġno oĭo onak, enda onekoak, bear dira. Oroitu zaitetze beti: oĭo bakoitza, aġaultz-jartzalea izan edo ez, moko langile baten jabea da. Oĭo txarġak onak aġa jaten dute, ta jabeari txanponak eman beaġean ostu egiten dizkiyote.

«Kupel utsetik ez dezu sagardorik aterako» —esan oi da. Era beran, oĭo aġaultzik jartzen ez dutenengandik ez degu onura aundirik sortuko.

Askok, utsegite ugaritik ateratzen dute jakintza. Utsegite oyek txanpon asko bear izaten dituzte ta jakintza ori garestia da. Utzi ditzagun bada bazteġean, bide onetik jaġaitu nai ba-degu, utsegite kaltekor guzti oyek.

Ōlo bereziak, bikañak, enda onekoak; janari, estalpe ta ibiltoki egokiak; ardura zaletasuna jabeak: ara emen bide onen mugañi bear-beařenak.

Guazen bada, bide oni jañaituaz, mugañi bakoitzean egonaldi labur bat egitera.

I

Ōlo bereziak

Ōlo bereziak, bikañak, enda onekoak: bai orlako ōloak bear gure baseñietan, ta ugari.

1921'gařen urtean 25 *miłoi* laurlekoen balioa sartu zan España'n ařaultz eta egaztiaz. 1924'gařen urtean beřogeita sei miłoi laurlekoena. ¡Ikustekoak dira Bilbao'ra itxasontzitan etortzen diran ařaultz-pilak! ¡Baita ere Pasaia'n ikusten diranak! (1)

(1) Eta erbestetik ekartzea litzake gutxiena, ařaultz onak bialduko ba-lituzteke. Guztiok dakizute, izpařingietan irakuñi dezutelako, gure Jaurleri edo *Gobernadore* jaunak oyetako ařaultz bidaldi baten zai egon dala... ¡Makiña jasota zai! Ez dakit bidaldi ura iritxi dan ala ez. ¡Onelako ardura erakutsiko baluteke danak!

¡Gauz auek adierazteak samintasun aundia dakar! ¡Gure Euskaleri onek zenbat eta zenbat txanpon ez luke bilduko afaultz ugarriak salduaz!

Afaultzak jaki ona dalako, ondasuna ekartzen badu, osasuna ere ematen du.

Lanteri ontan urte asko igaro dutenak—*Txaron* jauna da oietako bat—oio bakoitzak bere janariaren ordaña emateko, irurogeitamar afaultz urtean jañi bear ditula, esaten dute. (1)

Badakigu, egi mardula dalako, gure base-ritan dauden oioak gutxigo jañita ere ez dira-

(1) España'n 18 miñoi oio daude; au da: anei neurkin lankitu (kilometro cuadrado) bakoitzan 35 oio.

Urtean, batez-beste, oio oietako bakoitzak irurogeitamabi afaultz jartzen ditu, ta guzira 1.350 miñoi afaultzak; au da, 6 afaultz ilero espanar bakoitzarentzat.

Ondo agertuko zaizute ezin leikela 6 afaultz oyekin zankoak loritu, ta erbestetik ekañi bearko dirala España'n bear diran afaultz guziak.

Eta onela, 238 miñoi afaultz erbestean erosten dira, 38 miñoi laurleko emanaz.

España'ko oioak bada, bere janariaren ordaña bakar-bakaña ematen dute.

la zořetan egongo, jabeak janari merkea ematen diyotelako; bařo ez degu orain ikusi bear baseřitan gertatzen dana, ořotatik onura onena ateratzeko eskubideak nortzuk eta nolakoak diran baizik.

Josi zagun bada gogoan egi au: irurogeitamar ařaultz gutxienez jartzen ez ditun ořoa, eltzerako, ez ařaultzak egiteko.

Ipar Amerika'ko lateři batuetan, gauz geyenetan bezela, lanteri oyetan ere goi-goitikan dijoaz.

Bada an eři bat, Petaluna deritzayona, txito jaio-beřik salduaz amar miřoi laurleko urtean ateratzen dituna.

Txitak jayotzeko tresna batek irureun miřa txito ateratzen ditu ekiřaldi bakoitzean. A ze zalaparta irureun miřa txito ayek batbatean pioka asten diranean!

Lateři-batu oyetan 1909'gařen urtean irureun miřoi ogerleko ařaultz-truka sartu ziran. (1)

(1) 1923'gařen urtean egaztiak eta ařaultzak salduaz 7 biřoi 329 miřoi laurleko bildu ziran; zaldi, asto ta mandoak eman zutena bařo sei bider geyago.

Larogei mila oño dituzten jabeak badira, ta urtean irurogeitamar eta eun mila ogerleko garbi ateratzen dituztenak ere bai.

Baña olako irabaziak norberenganatzeko, len esan degun bezela, astiro-astiro jua bear da, gutxitik asi ta urtetik-urtera zabalduaz.

Udazkenean eta neguan araultzak udaberrian ta udaran baño saneuri aundiagokoak izan oi dira, udazkenean eta neguan gure baseñitako oñoak araultz gutxi jartzen dituztelako.

Asko irabazi nai ba-degu bada, gure oñoak garai oyetan araultz asko jari bearko dizkigute.


Oño-endak

Oño-enda onenak.—Lenago esan degun bezela oño enda onekoak bear ditugu.

Onenak, araultz jartzeko, *Leghorn*, *Wyandotte*, ta *Rhode Island* deritzaienak. Batez ere lenengoa. Badira beste batzuek ere, araultz jartzale onak: *Minorkataña*, *Hanburtaña*, *Andaluzitaña* ta abar.

Aragitako, *Brakmantafa*, *Kotxins* eta beste batzuek.

Añaultz jartzale onak eta aragitako balio duenak ere ba-dira. Onenetakoa *Wyandotte*




Wyandotte oioa

txuria da; beste batzuek ere onak dira, *Rhode Island*, (1) *Plymont*, *Orpingtons* eta abar.

(1) Enda ontako oĩaskokin iren edo kapoi ederak egiten dira.

Oïo afaultz-jartzalea ez da gorputz aundi-koa, bai ordea polita, anka me ta luzeduna.

Biziak, egakariak, azke bizitzeko obea-goak, itxituran gordeta eukitzeko baño.



Leghorn oïo taldea

Ikusten dira *Leghorn* batzuek iru neurkin edo *metro* luze sarezko itxitura afaatoi batek bezin azkar igotzen. Onena da oïotegi ziara itxitakoan eukitzea, edo bestela azke uztea.

Oĭo auek beriala azitzen dira, ta aste gutxi baño len badaki batek zenbat oĭasko ta zenbat oĭanda sortuko diran.

Era ontako oĭoak ez dira kolkatzen, eta bat edo beste kolkatu aĕen ez dira onak txitak ateratzeko. Jan gutxikoak diralako, egazti oyek onura aundia ematen dute.

Leghorn deritzaien oĭoak aĕaultz aundi ta txuriak jartzen dituzte.

Aĕaultz-jartzalea ta aragitako ere ona Wyandote txuria dala, esan degu. Leghorn' ek aĕa aĕaultz jaĕi aĕen, aĕaultz oyek txikiagoak dira, ta txitotako jartzen diranetan ustel asko agertu oi da.

Gure baseĕietako oĭoak.—Enda oneko oĭoak bear ba-dira, ez luke iĕork baseĕi askoetako oĭoen enda ezagutuko. Ba-dira txuriak, baita ere goĕiak, txikiak ala aundiak.

Laffitte ta Saiz jaunak idatzi zuten idazti txiki bat.

Idazti oĕetan esaten digutenez baseĕitako oĭoak bi saĕletan jaĕi litezke.

Lenengoan, bertako endakoak, au da, 20

edo 24 neurkin eunen edo zentimetro gora jotzeaz; buru lori ta luzea; galdur makurtua; kokotz goña; begi biziak; lepo lori ta motza; iztar aragidunak, motzak ta indartsuak, autsmargoz margoztuk, batzuetan oriyak ere bai; luma gabeko ankak, azkazal motz eta indartsuk, lumak autsmargoz margoztuk. Añaultz jartzaleak, urtean 150 jartzen dituzte, jaun oyek esaten digutenez. Nere ustez askotxo dira 150 añaultz oyek. Baleike oño bakar batzuek bereste egokiak egiñaz oñenbeste añaultz jartzea, baño ez batez-beste.

Bigarren sailan luma oridun oñoak jartzen dituzte. *Kontxintxina gipuzkoar*ak deritzayote. Ogeitabostetik ogeitamar neurkin eunen gora jotzeaz; bular-zabal; moko-luzeta kokotua; iztar aragidunak; azkazal luze ta indartsuak. Lenengo sailekoak baño jartzale txikiagoak omen dira. Oño oyek bertako endako oño ta *Kontxintxinako* oñaren nastutzetik datozte (1).

(1) Nastutze kaltekoña izan dala nastutze ori esaten digute bere idaztian jaun oyek, eta bidezkoa da olako iritzia.

Oloak berestu

Olo bereziak izateko bereste onak eta jaraituak egin bear dira.

Orain irurogeitazazpi urte, Ipar-Amerika'ko lateñi batuetan olo on baten bila asi ziran, ta gure alde onetara etoñi ere bai.

Itali'ko Leghorn deritzaion eñi txiki batean olo bizi ta polit bat ikusi zuten, eta olo arekin zer edo zer egingo zutelakoan Amerika'ra eraman zuten.

Ordutik onera, bereste egokiaz, añaultz gutxi jartzen zuen olo ura, añaultz jartzañe aundi biurtu da. Badira urtean 330 añaultz jartzen dituzten oloak.

Eginkizun ontan asten danak, urtetik urtera bere oloen enda ontzen juan bear du. Asieran olo onak artutzea beañezkoa da, baño olo oyen enda ontzen juan dedila, ez txartzen. Ortarako, lanteri guzietan bezela,

Urte asko galdu dira Gipuzkoa'n bertako oloaz bereste egokirik egin gabe, ta erbestetik enda oneko olo ta oñañak ekañi gabe. Egin dan guzia jaun batzuek bere irabazpidetzaz egin dute.

bere oarpen osoa oġoetara biurtu bearko du; ez da zuzen juango asiera ona eman, eta lo zoġoan jaġaitu nai duna. Lanteri polita ta atsegiġa da lanteri au, eta onura onekoa. Ez da emen, erbestean bezela, 5 mila laurlekotan oġo bakoitza saltzen, amar edo amabost laurlekotan baizik, bada-ezpadako endako oġoak diralako. Asi diteztela Euskal-erian erbestean bezela enda oneko oġoak jartzen, bereste onak egiten, eta eġezki, gure eria ortarako egokia dalako, urte batzuen baġu, enda oneko oġoak lirake Euskal-eriko oġoak eta saneuġi aundikoak.

Bereste egokia egiteko bidea argi agertu nai nuke, Ipar Amerika'ko lateġi batuetan bereste onetzaz lan gogoġak egiten dira-ta.

Oġategiko oġo bakoitzak zenbat aġaultz jartzen dituan jakin bear da.—Izan leike oġo aġaultz-jartzale on baten aġaultzetik oġo jartzaleak irtetzea. Oġo oyekin oġar on bat jartzen bada—au da, oġo jartzalen aġaultzetik sortutako oġara—orduan egon leike ziur oġo jartzaleak sortuko dirala. Itz gutxitan

esateko: oĭo onak zer ikusi badu, oĭar ona bear-beaġekoa da.

Lau urte buruan oĭotegi eder bat, oĭo jartzaleaz betea euki leike.

Lenengo jakin bear deguna da zenbat aġaultz jartzen dituzten gure oĭoak. Txorakeri aundi bat da oĭotegian eun oĭo eukitzea, ta oĭo bakoitzak zenbat aġaultz jartzen dituan ez jakitea. Eun oĭo oyetatik, ogei edo ogei-tamaġek ez badituzte irurogeitamar aġaultza gutxienez jartzen, iġ ta azokan saltzea da onena. Itxu batek laguntzik ez badu bere ondoan, ez da uġuti juango. Pauso asko baġno len, aztapozo egin eta luġera juango da. Oĭo-lanteri ontan ere oĭo bakoitzak zenbat aġaultz jartzen ditun ez badakigu, itxuan antzera guaz, eta urte asko baġno len, aztapozo gogor baten bidez luġean gera, gure oĭotegi ta oĭo guziekin. Jakin ditzagun bada zenbat aġaultza jartzen dizkigun oĭo bakoitzak.

Ortarako kabi egokiak bear ditugu. Kabi oyetan oĭoa aġaultza jartzera sartzen danean atea itxitzen du, ta baġuan egoten da ate ori iriki artean.

Olozaiak atea irikitzean begiratzen diyo oloak ankak daukan erastunari; ta erastun oren zenbaki edo numeroa, ortarako daukan ori batean idazten du. Ori oretan ileko egunak ereskadan agertzen dira, ta egun bakoitzaren parean eta oloak erastunetan damazkiyen zenbakiyen ileran, kurutze txiki bat egiten da.


Era ontan gauz ereza da ilero ta urtero olo bakoitzaren araultzak zenbat diran jakitea.

Bi erako kabik egiten dira. Batzuek atea erdi irikiya dute; oloa sartzerakoan atea zutikan daukan krisketa eroritzen da ta atea ere bai. Baruan dagon oloa ezin atera leike: bai ordea beste bat sartu.

Beste batzuek, eta auek dira onenak, zirin-zaran ibiltzen dan atea dute. Oloa sartzerakoan goitik bera eroritzen da atea, ta oloa baruan gelditzen da, beste bat sartzeko bildurik gabe.

Gure basarietako andreak goizean goiz ikusten dute olo bat araultza jartzeko dagon edo ez. Beste askok aratsaldean, oloak

lotara iyotzen diranean, oġotegiko atea itxi baġno len. Ortarako sartzen diyote oġoari bia-tza aġaultza ateratzen dan bidetik, eta garbi



Atea erdi-irikia dutenetako kabia

(esaera bat da) ikusten dute, oġo aġek jaġriko dun edo ez aġaultza egun artan. Eġez da orduan ere len ikusi degun kurutzea egitea.

Kabi oyetatik bear aġa jaġi ezkerro, lan eġeza da aġaultzen bilketa. Lau oġorentzat

kabi bat eukitzea, ondo dala esaten dute. Egunean maiz-xamar ikusi bear dira kabi oyek. Lenengo agertua goizeko bederatzi-etan eta azkenekoa aratsaldeko irurretan. Ordu tarte oyetan ordutik ordura.

Askok esango dute lanteri ugari ta neke-tsua dala lanteri au, baño lan guztik ondo egiteaz neketsuk izan oi dira. Etxe-ondoan edo etxe-baŕuan oġotegia euki ezkerro, araultz biltze au egiteko denbora asko bear ez dala esan leike. Oġoai jartzen zaizkaten erastunak, *aluminio* deritzayon *metal*-ezkoak dira, ta bakoitzak zenbaki bat du.

Ori batean kurutze txiki batzuek egiten dirala ere esan degu. Ori oyek onela tajutuk daude.

Goitik bera dagon lenengo ezkeretako zirindaran, ilaren egunak agertzen dira. Goyan, lenengoko zear dijuan maŕan, oġoen zenbakiak. Eskubian azkena datoŕen goitik berako zirindaran, egun bakoitzan jaŕi dituzten araultz guzien zenbakia jartzen da. Beyan, asken auŕenen auŕekoz zear dijuan maŕan lengo ilabetetan oġo bakoitzak jaŕi

dituan arautzen zenbakia. Gero, asken au-
reko zear dijuan maran, olo bakoitzak ila

ILEROKO ARAUTZ JA RTZEA																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																							
MIRENT XV. LASARTE																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																							
1927														MATE 1927																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																									
KALENDARRIA														MATE 1927																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																									
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122	123	124	125	126	127	128	129	130	131	132	133	134	135	136	137	138	139	140	141	142	143	144	145	146	147	148	149	150	151	152	153	154	155	156	157	158	159	160	161	162	163	164	165	166	167	168	169	170	171	172	173	174	175	176	177	178	179	180	181	182	183	184	185	186	187	188	189	190	191	192	193	194	195	196	197	198	199	200	201	202	203	204	205	206	207	208	209	210	211	212	213	214	215	216	217	218	219	220	221	222	223	224	225	226	227	228	229	230	231	232	233	234	235	236	237	238	239	240	241	242	243	244	245	246	247	248	249	250	251	252	253	254	255	256	257	258	259	260	261	262	263	264	265	266	267	268	269	270	271	272	273	274	275	276	277	278	279	280	281	282	283	284	285	286	287	288	289	290	291	292	293	294	295	296	297	298	299	300	301	302	303	304	305	306	307	308	309	310	311	312	313	314	315	316	317	318	319	320	321	322	323	324	325	326	327	328	329	330	331	332	333	334	335	336	337	338	339	340	341	342	343	344	345	346	347	348	349	350	351	352	353	354	355	356	357	358	359	360	361	362	363	364	365	366	367	368	369	370	371	372	373	374	375	376	377	378	379	380	381	382	383	384	385	386	387	388	389	390	391	392	393	394	395	396	397	398	399	400	401	402	403	404	405	406	407	408	409	410	411	412	413	414	415	416	417	418	419	420	421	422	423	424	425	426	427	428	429	430	431	432	433	434	435	436	437	438	439	440	441	442	443	444	445	446	447	448	449	450	451	452	453	454	455	456	457	458	459	460	461	462	463	464	465	466	467	468	469	470	471	472	473	474	475	476	477	478	479	480	481	482	483	484	485	486	487	488	489	490	491	492	493	494	495	496	497	498	499	500	501	502	503	504	505	506	507	508	509	510	511	512	513	514	515	516	517	518	519	520	521	522	523	524	525	526	527	528	529	530	531	532	533	534	535	536	537	538	539	540	541	542	543	544	545	546	547	548	549	550	551	552	553	554	555	556	557	558	559	560	561	562	563	564	565	566	567	568	569	570	571	572	573	574	575	576	577	578	579	580	581	582	583	584	585	586	587	588	589	590	591	592	593	594	595	596	597	598	599	600	601	602	603	604	605	606	607	608	609	610	611	612	613	614	615	616	617	618	619	620	621	622	623	624	625	626	627	628	629	630	631	632	633	634	635	636	637	638	639	640	641	642	643	644	645	646	647	648	649	650	651	652	653	654	655	656	657	658	659	660	661	662	663	664	665	666	667	668	669	670	671	672	673	674	675	676	677	678	679	680	681	682	683	684	685	686	687	688	689	690	691	692	693	694	695	696	697	698	699	700	701	702	703	704	705	706	707	708	709	710	711	712	713	714	715	716	717	718	719	720	721	722	723	724	725	726	727	728	729	730	731	732	733	734	735	736	737	738	739	740	741	742	743	744	745	746	747	748	749	750	751	752	753	754	755	756	757	758	759	760	761	762	763	764	765	766	767	768	769	770	771	772	773	774	775	776	777	778	779	780	781	782	783	784	785	786	787	788	789	790	791	792	793	794	795	796	797	798	799	800	801	802	803	804	805	806	807	808	809	810	811	812	813	814	815	816	817	818	819	820	821	822	823	824	825	826	827	828	829	830	831	832	833	834	835	836	837	838	839	840	841	842	843	844	845	846	847	848	849	850	851	852	853	854	855	856	857	858	859	860	861	862	863	864	865	866	867	868	869	870	871	872	873	874	875	876	877	878	879	880	881	882	883	884	885	886	887	888	889	890	891	892	893	894	895	896	897	898	899	900	901	902	903	904	905	906	907	908	909	910	911	912	913	914	915	916	917	918	919	920	921	922	923	924	925	926	927	928	929	930	931	932	933	934	935	936	937	938	939	940	941	942	943	944	945	946	947	948	949	950	951	952	953	954	955	956	957	958	959	960	961	962	963	964	965	966	967	968	969	970	971	972	973	974	975	976	977	978	979	980	981	982	983	984	985	986	987	988	989	990	991	992	993	994	995	996	997	998	999	1000
1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38	39	40	41	42	43	44	45	46	47	48	49	50	51	52	53	54	55	56	57	58	59	60	61	62	63	64	65	66	67	68	69	70	71	72	73	74	75	76	77	78	79	80	81	82	83	84	85	86	87	88	89	90	91	92	93	94	95	96	97	98	99	100	101	102	103	104	105	106	107	108	109	110	111	112	113	114	115	116	117	118	119	120	121	122	123	124	125	126	127	128	129	130	131	132	133	134	135	136	137	138	139	140	141	142	143	144	145	146	147	148	149	150	151	152	153	154	155	156	157	158	159	160	161	162	163	164	165	166	167	168	169	170	171	172	173	174	175	176	177	178	179	180	181	182	183	184	185	186	187	188	189	190	191	192	193	194	195	196	197	198	199	200	201	202	203	204	205	206	207	208	209	210	211	212	213	214	215	216	217	218	219	220	221	222	223	224	225	226	227	228	229	230	231	232	233	234	235	236	237	238	239	240	241	242	243	244	245	246	247	248	249	250	251	252	253	254	255	256	257	258	259	260	261	262	263	264	265	266	267	268	269	270	271	272	273	274	275	276	277	278	279	280	281	282	283	284	285	286	287	288	289	290	291	292	293	294	295	296	297	298	299	300	301	302	303	304	305	306	307	308	309	310	311	312	313	314	315	316	317	318	319	320	321	322	323	324	325	326	327	328	329	330	331	332	333	334	335	336	337	338	339	340	341	342	343	344	345	346	347	348	349	350	351	352	353	354	355	356	357	358	359	360	361	362	363	364	365	366	367	368	369	370	371	372	373	374	375	376	377	378	379	380	381	382	383	384	385	386	387	388	389	390	391	392	393	394	395	396	397	398	399	400	401	402	403	404	405	406	407	408	409	410	411	412	413	414	415	416	417	418	419	420	421	422	423	424	425	426	427	428	429	430	431	432	433	434	435	436	437	438	439	440	441	442	443	444	445	446	447	448	449	450	451	452	453	454	455	456	457	458	459	460	461	462	463	464	465	466	467	468	469	470	471	472	473	474	475	476	477	478	479	480	481	482	483	484	485	486	487	488	489	490	491	492	493	494	495	496	497	498	499	500	501	502	503	504	505	506	507	508	509	510	511	512	513	514	515	516	517	518	519	520	521	522	523	524	525	526	527	528	529	530	531	532	533	534	535	536	537	53																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																																														


neko zear mañan, oño bakoitzak iñla onen bukaera arte jañi dituen añaultzzen zenbakia. Kabitik kanpora agertzen diran añaultzzen zenbatzea ere eramaten da: ortarako dago oñi ortan goitik bera datoñen zirañdara bat.

Kabi oyen lana oñlandakin egiten da; oñlandak Epaila'n jayo ta Uñila'n añaultz jartzen asten dira. Uñila'ren amabostetik Ilbeltza'ren amabostera ogeitamar añaultz gutxienez jañi dituzten oñlandak onak dira, ta oyen añaultzak txitotako onenak.

Urte osoan kabi oyen lana artu nai ez bada, neguko iru ilabete oyetan egin da ere aski da. Ori bai: lan ona egitekotan urte osoko ikustaldia askoz onura onekoa da.

Oñoak añaultz-jartzaleak izango ote diran jakiteko bide ereza.—Walter Hogan, Petaluma'ko oño talde aundien jabeak, ogeitamar urtean buru-neke gogoñak euki zitun, ta buru-neke oyen bidez oño ona dan edo ez jakiteko bidea erakutsi zigun. Artzen da ortarako oño bat ezkeñeko besapian ta ikusten da eskuiko eskuaz zenbat biatz sartzen

diran bular-ezur ta ipur-konkor deritzayon ezur-tartean. Iru biatz gutxienez sartzen bada, oġo ona dala esan leike. Biatzak be-



Walter Hogan'ek erakutsitakoa.

re neurikoak: ez ikaragarizko loriak, ez da ere ikusten ez diran bezelako meñak. Ezur oyen gañean dagon aragiyaren loritasunak ere zer ikusi badu.

Olo añaultz-jartzaleak, jaten duten geyena añaultz biurtzen dute: ez ala ordea, olo aragi aundikoak. Oñelakoak aragi biurtzen dute jaki geyena.

Gizon oñek, Walter Hogan'ek, Leghorn deritzayon egaztiaz egin zuen lan geyena. Bost biatz ezur-tarte ortan sartzen baziran eta ezur oyetako batek eta gañean zeukan aragiak biatz txikiyaren loritasuna bazuen, olo ura 145 añaultz jartzalea zan.

Jakingo baluteke gure baseñietan oloaren añaultz-jartzaleatasuna oñen eñez ikusten dala, asko auñeratuko gendukela nago.

Ipar Amerika'n lanteri au aur txikiak ere badakite; eñez ikasten dan lanteria da, ta olotegian sartzen diranetik egiten dute.

«Pelviens» deritzayon bi ezur tartetik ateratzen da añaultza. Ezur oyek oso biguñak dira, ta añaultza ateratzekoan lasaitzen dira ta toki geyago uzten diyote. Ezur oyen tar-

tea iru edo lau beatzena bada, oġo-jartzalea izango da. Bi beatzena bakarik bada, arantz gutxi jariko duna da. Oso ereza da eskuiko eskua betik gora eramanez ezur oyek bilatzea.

Oġoaren larreak ere zer ikusi badu: larra zara oġo jartzale txarrena da; jartzale onak larra mia, atsegiña, biguña dute.

Oġo indargabekoak, alpeñak, jantzale gutxikoak, galdur gogor eta txuriya dutenak, bi beatz «Pelviens» ezur-tarte dutenak, bular-ezur ta ipur-konkor tartean iru beatz sartzen diranena, zilbor gogordunak, eta luma aldaketa Dagonila'n edo Agora'n egiten duten guztiak, bastarean utzi bear dira. Indartzuk, biziak, jantzale onak, galdur aundi ta goñia dutenak, «Pelviens» ezurak bat bestetik iru beatz aldenduk dituztenak, bular-ezur ta ipur-konkor tartean gutxienez lau beätzen tokiya dutenak, luma aldaketa gabeko oġoak, oyek dira onenak ta oġotegian gorde bear dira, eta ez orain baseñietan gertatzen dana egin: oġo onak azokara eramanez eta txarrik etxean gorde.

Bereste au luma-aldaketa garaian egin bear da. Luma-aldaketan dagon ołoari, ańa-ultz garaia edo *denbora* joan zayo. Askok uste dute goiz xamar luma aldaketa egiten duen ołoa, oło ona dala, ta oker dijuaz sinismen ortan.

Onelako bereste egokia urtero egin ezkerro gure ołoak artzen duten jakiaren ordańa nai ala emango digute, ta urtero jayoko diran ołandak oło onak izango dira ta ołaskoak ołar onak, eta onela urtetik urtera gure ołotegia ontzen eta indartzen juango da.

Ołañak ere berezi

Ołañetan ere bereste bat egin leike. Walter Hogan berak ematen dizkigu bereste ori egiteko zuzenkai batzuek. Kaskezur motza dunak, ańaultzak jartzeko etorkizun txikia emango du; ta beste era batera, kaskezuńa luzea duenak, ańaultzak jartzeko etorkizun aundia itsasiko du.

Jartzen bada beatz lodia kaskezuńa ta lepoa batzen diran tokian, eta aundiurńen bea-

tza beları ondoan, eta bi biatz oyek berdinkai *edo plomada* batean gelditzen ba-dira, oġar arek ez du ezer balio. Beatz lodia bestea baño atzerago gelditzen bada, oġar arek aġaultzak jartzeko etorkizun aundia emango du.

Oġotegian oġar on bat daukagunean jayotzen diran oġoak jartzaleak diran edo ez, ikusi bear da. Oġar gabe dauden oġoak aña aġaultza jartzen ez dituztela esaten da, ta au egia dala askori deritzaye. Oġara beti zomoro-bila dabil; bere atzetik ere bai oġoak, eta ibilketa oyek bizkortasuna ta aġaultzak jartzeko kemenen geitzen dutela esan oida.

Oġar bakoitzak zortzi oġo euki bear ditu bere aldamenen; oġo aundik diranean bostekin ere aski da; amar, oġo ariñak diranean.

Oġo onaren aġaultzak, txitotako izan edo sukalderako saldu, saneuġi berdiñekoak ez dira. Askok saneuġi aundiagoa ez emateatik azokan erosten dituzte, batez ere onelako edo alako saltzaleak saltzen ditun aġaultzak oġo enda onenekoak dirala jakitean.

Ingelandaġak enda oneko oġoen aġaultzak

azokara eraman bear dituztenean ur otzean amabi ordu eukitzen dituzte; onela itxura edereko aŕaultzak gelditzen dira, baño ez dute txitak ateratzeko baliyo.

Txitoak


Badauzkagu oĀar eta oĀo onak, baita ere aŕaultz bikañak. Guazen bada, oĀotegia ondu nai ba-degu, txito edereak ateratzera.

Txito oyetatik oĀandak oĀaskoak baño geyago sortzen dirala ta...nere lagun baten iritxian erezki ezagutzen omen da aŕaultzari begiratuaz, oĀaskoa ala oĀanda sortuko dan. Aŕaultza zutikan eukiaz, baŕuko aizea goyen ba-dago, oĀaskoa; oĀanda, bian dago-nean. Ez det nik olako oŕrikaspenik egin; nere lagunak esaten ditun guziak ere ez dira siñistekoak eta...

OĀo aragi aundikoen txitoak Epaila'n jayo bear dute; oĀo ariñenak Joŕaila'n. Txitotako aŕaultzak kabitik ateratzekoan jayo diran eguneko zenbakia ta oĀoak eraztunan dutena, aŕaultz azalian idazten dira.

OĀo berezien aŕaultzak txitaldiak atera-

tzeko tresnan jañiaz, emezortzigañen eguna



Bereztea egiteko kutxak.

inguratzean, sarez egindako kutxa edo zoño batean sartu ta tresnan utzi bear dira.

Jayotzen diranean biatz tartean dituzten mintzetan zulo txiki batzuek egiten ba-zaizkiyote, bizi diran bitartean agerkun ořekin ibiliko dira.

Anka bakoitzean bi mintza dituztelako amasei erara galgatu litezke.


Galga oyek ortarako antolatuta daukagun idazti batean zuzendu bear ditugu. Txituari ołoari bezela eraztunak jartzen zaizkiyote, baño obeagoa da len esan degun zulatze ori.

Lanteri au guzia ondo eramatera oło bakoitzak bere jatořitza oři batean euki bear du. Onela jabeak urtetik urtera ikusten du ołotegia gora ala bera dijuan.

Gure baseřitan txitak kolkakin ateratzen dira ta ez da eřez guk orain esan degun bereste ori egitea, jayotakoan txita guzik berdiñan diralako.

Toki batzuetan ołařak, txitak ateratzeko ere *balio* dula esaten dute. Ortarako bulařeko lumak kenduaz eta aragia piper autsaz gogorki igortziaz, otzamartasunaren bila ařaultz gañean egoten da ta txitak ateratzen ditu.

Odolkidetasunak (consaguinidad) ere zer-
ikusia badu. Askok odolkidetasuna gauz



Txitak ateratzeko tresnak.

txar bat bezela daukate, ez ordea lanteri

auetan erne ta auñera dijuaztenak; oyentzat gauz ona da odolkidetasun au.

Gauza ondo ateratzeko olo bat bere semearekin edo bere bilobarekin ezkontzen da; baita ere olar bat bere alaba edo bere bilobarekin.

Berialaxe indartzen dute ezkontza oyek, asieratik jañi dan oloaren odola, eta urte-tik urtera izakera ta antza gogortzen jauten da.

Iru erara egin leike odolkidetasun au.

a) Aita alabarekin ezkonduaz; oyen umeak amaren odolaren laurdena izango dute.


b) Semea amarekin; umeak amaren odoletik lautatik iru zati izango dituzte.

k) Anai-arebak alkar ezkonduaz; umeak aitaren eta amaren odoletik berdiñean euki-ko dute. Azkeneko au gutxitan egin oi da.

Odolkidetasunak oloaren izate on guztik indartzen ba ditu, indartzen ditu uts guztiak ere.

Erne ibili bearako du bada jabeak odolki-detasun au egitean, olar eta oloak ondo ezagutuaz.

Odolkidetasun au urte batzuetan egin ez-
kero, odol beñia sartu bearean arkitzen gera.
Olo onak jafiaz, olotegian dauden olañak



Odolkidetasunaren agerkaia.

beren ondasun guztia olo beñiari emango
diyote.

Olotegi batean jatorri oneko olar beñi bat
jartzea askotan gauz egokia da.

II

Janari, estalpe ta ibiltokiak

Itzaldi onen bideko bigarren mugan, janari, estalpe ta ibiltokiak agertzen zaizkigu.


Janariak

Jakiak bear bezelakoak oloari eman ala ez, zer ikusi aundia dauka arautz jartzen.

Olo basatiak ba geneuzkake ta olo oyen atzetik ibili, laister jakingo genduke olo oyek jaten dutena. Aleak, igali bakar batzuek, ar ta xamofo ugariak, belar guri asko, dira olo basatiaren jakiak.

Jaki osoak iru izaki bear ditu beraz: aleak, abere-gaiak, eta barazkiak. Gure baserietan, artoa ta artoiriña ugari ematen dizkiyote oloai. Onela, itxura oneko oloak egiten ba-dira ere, arautz gutxi jartzen dituzte.


Askotan aragi geyegiko oloak bat batean iltzen dira, ta baseritarak aboa zabalik arituta gelditzen dira, orenbeste arto eman



eta ala ere oġotegiak ezer ere ez dulako auferatzen.

Jaki osoa era askotakoa izan leike; ara emen era oyetako bat:

Aratsean oġotegian oġoak sartu ta uzten



Janari-kutxak.

diranean, luġean lasto txiki tartean oġo ba-koitzaz larogei aztaki edo gramo ale botatzen dira. Lau erako aleak: gariya, gara-ġara, oġua ta artoa, danak puska berdi-

ñetan. Ale oyek txikituak obegoak dira. Artotikan pixka bat geyago jañi leike, go-
ringoa goñiagooa ateratzeko.

Goizeko amañetatik arñatsaldeko seietara,
oñoi nai añña jaki legor eman.

Jaki legor ori onelakooa izan leike:

Eñegiloi kaskaña.....	5	kgs.
» mea.....	6 ¹ / ₂	»
Arto iriña.	3 ¹ / ₄	»
Olu »	5	»
Pantzebelar iriña.	3 ¹ / ₄	»
Añai »	4	»
Eskutiogi (kakañet) iriña...	1 ¹ / ₂	»
Ezur autsa.....	3	»
Egur ikatz autsa.....	1	»

Egaztiak ortz gabekoak diralako (1) bere urdailan añi txikiaz jakia austen dute ta oñegatik ondar lañi edo añi txikia nai duten añña jartzea ona da.

(1) Ludyaren asieran, Jaungoikooa'k egaztik egin zitunean, ortzakin egin ote zitun diyote; baño beste egaztik izango ziran, guk ezagutzen ditugun egaztik orduan ere ortzik gabegoak izango ziran.

Jaki guztiak egokiak bear dute izan.

Oġo bakoitzak bere araban 2.000 araultz-gai ditu, eta jaki egoki oyetzaz araultz gaiak araultz biurtzen dira. Lanteri au egiteko jakiak ez badira, oġoaren gorputzak oyetako araultz-gai asko artzeaz oġoak araultz gutxi jartzen ditu.

Jaki egokiak egaki edo luma-aldaketan ere zer-edo-zer ikusi beara badute.

Oġoaren egaki edo lumak urte betean irauntzen dutela, luma beřitzekoan luma zarak bota ta beġiak sortzen zaizkate. Geyenetan luma-beřitze au Uztaila'n asten da; beste askotan Uztaila'tik Urila'ra.

Oġo askok luma-beřitze ori zortzi aste baruan bukatzen dute; beste askok amasei ilabetean ere ez.

Luma beřitzen dagon oġoak jateko gogo gutxi dualako, makaltzen juaten da. Garai ortan jaki egokiak eman ezkerro, indartzen da oġoa ta beriala lumak beřitzen ditu.

Barazkiak ere bear dira; barazki gabe ez dago araultz-jartze onik. ¿Noiz jartzen dituzte araultzak egazti basatiak? Belara indar-

tzen danean. Gutxienez irurogei aztaki edo gramo barazki bear ditu oġo bakoitzak.

Belar era askotakoak ematen zaizkiyote oġoari; onena Pantze-belaġa da.

Oġiakin iġero zalikada (kutxarada) bat *azufre*, ta uretan *sulfato hierro* deritzayon aġia urtuta emateaz, oġoak gaitzik gabe iraungo dute.

Estalpe ta ibiltokiak.—Estalpe ta ibiltokiak ere egokiak izan ezkeru aġaultz-jartzea ugaritzen da.

Oġoak, izaki biziak diranez, aize garbiya bear dute. Aize garbiya eta oġotegi garbiyak ere bai.


Toki askorik ez izan aġen, sei oġo Leghorn edo Wyandotte txuriak eukitzeko aġia izan ezkeru, 2 neurkin (metro) luze, $1 \frac{1}{4}$ zabal, eta $1 \frac{1}{4}$ goruntz dun oġotegiaz, ondo gera.

Oġoi ateratzen utzi gabe, garbitasun aundiaz, enda onekoak dirala, jaki egokiak emanaz, 1.000 aġaultz urtean eġez sortuko dizkigute.

Urtea bukatzean oġo oyek saldu ta enda oneko sei oġanda erosi.

Egiketa oni egiketa indartsua deritzayo, ta onura ona ateratzeko garbitasun ikaragarrikoa erabili bear da.

Len esan degun bezela, luñean jartzen dan



Argia'ren aren ereduz egindako Ufeta jaunaren oñotegi bat.

lasto-tartean aleak botatzen ba-dira, oñoak bear duten ibilketa érez egiten dute.

Egiketa au bera, baño askoz aundiagoan,

Ipar-Amerika'ko Lateñi-Batuetan egiten da, ta oyeke erakutsita beste eñi askotan ere bai. Au ondo egiteko, oñotegiak legoñak, argidunak, eta aizelaster gabekoak izan bear dute.

Zotañaiña baño obeagoa da solairua; au ere oso legoña.

Egazia asko ibili ezkerro, koipe gutxi itsasten zayo ta añaultz ugarigo jartzen du; au dala ta jartzen degu luñean lasto txikia, oñoak azterkatuaz ibilketa aundia egiten dutelako.

Ontarako ere argia bear da: argi gabe ezin lezakete bada azterketa onik egin.

Beste oñotegi batzuek, erdi indartsuak dira; au da: egualdi txaña, euria edo eluña egiten dunean, oñoak bañuan eukitzen diran oñotegiak. Egualdi onetan zelai egokietan ibiltzen dira.

Itxian euki bear diranean, oñotegiak 3 neurkin zabal eta 6 neurkin luze beñogeitamar oñoentzat izan bear ditu. Oñotegi oye-tan len ikusi degun bezela, argi ta aize asko sartuaz oñoak gogoñagoak izaten dira, gaitz

gutxikoak. Askotan olotegiak aúrea irikia du, burdiñarizko sareaz itxia bakarik; otz aundiak diranean zirikoaz burdiñarizko sare ori estali leike.

Orain urte asko ez dala olotegiak itxiak izan oi ziran, otza kaltegaría zalakoan, baño andere batek olotegi irikiak egin zitun ta oloak otzaz il beárean indartu egin ziran. Ordutik onera, bide ontan lan asko egin da.

Gure baseñietan atzera guaz oraindik.


Geyenetan olotegia ukulun dago, ta simaur tartean dabiltz oloak.

Baseñitan egon áren, gaitzak biltzeko xamuak dira olo ayek, eta askotan gaitz itsaskor oyetakoren bat, olo guzien garai gelditzen da.

Azkeneko udara ontan, gure auzoko baseri geyenetan ikaragarizko gaitz itsaskor baten bidez, olo-talde aundik il ziran. Oyetako baseñi batean otarka ateratzen zituzten ildako oloak.

Amabost urte ba-dira olotegi ta oloak gure etxean ditugula, ta ez degu oraindik gaitz itsaskor bat ezagutu.

Ba-dira baseñi batzuek ołotegiak etxetxo egokietan antolatuta dauzkatenak; baño aye-tan ere ez da sartzen ez aizerik ez eguzkirik,



«Kontxa»-ondartzan ziran baño-txabolak,
ołotegi biurtuta.

bai ordea gaitza ugari. Zulo txiki bat izaten dute ołotegi oyek, eta andikan sartu ta ateratzen dira ołoak.

Jabearentzat ate bat badago, baño geyenetan itxita.

Zotal gaitzen mamóoak iltzeko dan uraz, kotak, ormak eta izkindoik ondo bustitzen dituzte, baita kareuraz ere.

Au dana ona da, bear-bearekoa; baño au bezin ona da aizea ta eguzkia ołotegiko azkeneko txokoan sartzea. Kasares jaunak Altza'n daukazkin ołotegi batzuek oso ederki asmatuk dira.

¿Gogoratzen alzerate udaran ondartzan jartzen zituzten txabolaz? Bai. Bada, txabol oyetako batzuek antolatuta dauzka, sei oło ta ołar batentzat.

¿Zenbat urtean gorde bear dira ołoak? Artu ditzagun lengo ilean, Epaila'n jayotako ołandak.

Lenengo urtearoa, 1927'ko Uřila'tik 1928'ko Dagonila'ra.

Bigarren urtearoa, 1928'ko Uřila'tik 1929'ko Dagonila'ra.

1929'an luma aldaketa baño len saltzea onena.

Oło jartzale onenen araultzak txitoak ate-

ratzeko gordetzen dira, gutxi jañi aŕen oġonaren jatoritza erasten dutelako.

Oġandak aŕaultz asko jartzen dituzte; bigaŕen urtean ere bai; askoz gutxiago irugaŕengoan.

Neguan aŕaultz gutxi jartzen diralata, aŕaultz oyen saneuŕia goruntz dijuala-ta, oġjabeak buru-naste asko izaten dituzte.

Ipar-Amerika'ko Lateŕi-batuetan, beti bezela, gai onetzaz zer-edo-zer oraiñ ere asmatu dute. Ara jaun oyek oldoztu dutena.

Neguan oġoa goiz igotzen da kotara ta biaramonean berandu jeisten da.

Ordu asko, bada, janik artu gabe igarotzen ditu, ta aulduaz aŕaultz gutxiago jañi ere bai.

Ordu-tarte ortan oġoari jana eman ezkerobere aultasuna kenduaz aŕaultz geyago jañiko lituke.

Esan eta egin: gaberdian erleju baten bigdez bat-batean argi indartsua piztutzen da, ta solairura jana eroriaz, uste dute oġoak eguna dala ta jatera josten dira.

Era ontan ordu laurden bat igaro ta argia

astiro-astiro iluntzen dijua, ta oloak, gaba beñiro datoñelakoan, kotara igotzen dira.

Ez det nik oraindik oñelako oañikaspelik egin; esaten dutenez oloak añaultz askoz geyago jartzen dituzte Uñi, Azaro, Abendu, Ibeltz eta Otsailean.

III

Jabearen ardura ta zaletasuna

Azkeneko mugara iritxi gera ta mugañi ontan jabearen ardura ta zaletasuna dauzkagu.

Itzaldia luze dijua, ta laxter izango du bukaera.

Olotegiko lanteri guziak, jabeak edo bere ordekoak egiten dituzte, baña oyek beti jabearen aũean.

Olotegiak aundiak jañiaz lanteri gogoña gure gain artzen degu. Oñengatik asiera eman baño lenagoz, geroko lanak eta atsekabeak begien aũean jañi bear ditugu.

Olotegi ta oloen lanteria emakumentzat gizonentzat baño egokiagoa da.

Oĭoak eĕez bildurtzen dira, batez ere aĕa-
ultz jartzaleak, ta ez ikaratzeko oĭotegian
oĭozaiak egiten ditun ibilketak legunak izan



Oĭotegi eĕezak.

bear dute, zalaparta gutxikoak: itza ere apal-
ki, ez kaĕaxika.

Gauzak bear bezela ez ba-dira ateratzen

ez inñori obena bota, nor berak izango du erú guzia-ta.

Oío bakoitzaren jatoritza, afaultzen zenbakiya, eta gora-bera guziak ondo idatzita gorde bear dira.

Begiak zabalik dirala jaraitzeko, jakien sañera, afaultz ta oíoen erteera, ta, itz batean esateko, artu-eman guziak gaurko egunean eramaten diran bezela eraman.

Itzaldi au bukatu baño len, lagundu diraten guziaz eskeñak, batez ere Kasares jaunari. Jaun au, oío ta oíar edeñak Altza'n eukiaz, enda onak zabaltzeko lan asko egiten ari da. Oío ayen tartean gauza asko ikasi ditut. Beste askok ere ikasiko dituzte ara gora juaten ba dira. ¿Eta jaun onek eta beste batzuek egiten dutena ez aluke egin bear gure ordezkari-batzañak, gure Diputazioak?

Guziok dakigun bezela asko egiten du beyak eta zezen enda onekoak ekañiaz.

¿Ez alitzake egiten dana baño geyago egin bear oíoen irabazpidetzaz?

Ni ta zuek ere bai oíetan gaude.

¿Oíoak bere ¡klo-klo! joaz, oíaarak egun sentitik kukuñuku indartsua zeruruntz bialduaz, ez aldute Jaungoiko aundiaren aintza goratzen?

Bai, gizona aoran birau zikiña erabiliaz txikitzen da, ta Jaunak egin ditun egaztiak bere aintza agertuaz aunditzen dira.

Oío ta oíaarak gure ondoan ditugunean, Jaungoikoaren egiteaz gogoratu gaitezen ta eskeñak biotz-biotzetik emanaz esan dezagun:

—¡Jauna!: aundia zera ta ikaragarizkoak dira zure eskuetatik sortu diran gauzak.




FRANZISKO MURO

Erestelkin edo fonografoaren
berogei ta amargaren
urtebetea

1927'G URTEKO AZAROA'REN

20'EAN IRAKURITAKO ITZALDIA





ERESTELKIN

EDO

FONOGRAFOA

JAUNAK:

Guztiz atsegiñ zait zuei, euskaldun jatorrak, itzaldi abetara ainbeste gogorekin etortzen zeratenok, nere itz ezereza eskeintzea. *Euskal-Esnalea*'k, bazkun maite onek, asmo goragañi, txalogañi bat izan du, itzalditxo bat fonografoagaz antolatzean. Euskalerian bi ola edo fabrika edeñak daude, eta bertan egiten diran lanak omen aundia alde guzietan izan dute ta orain dute. Beraz, *Euskal-Esnalea*'ren asmoa, beñiz ere esango det, txalogaña, goragaña da.

Ludi guztian ari dira egun abetan fono-

grafoagaz itzegiten. Gogo aundiarekin entzutera joaten dira, zuetako askok dakizuten bezela; bañan emen, ez nuben uste itzaldi, edo obetogo esanaz, beriketa motel au entzutera oñenbeste entzule etoriko zanik, batzere, ni bezelako iztun epel eta baldar baten itz maskaldua entzutera. Ikusten det ez dezutela begirapenik (gaur azaltzen dezuten bezela) itzlariagaz, eta zubentzako naikua dala gure euskera maitean zerbait azaltzia, zuen euskal gogoa pitin bat asezteko. ¡Bejondeizutela!

Nere gaurko asmoa, Euskalería'n gaur egiten diran disko eta fonografo ederak entzun-arazi eta opatzea, eta gai oñetan beñi batzuek ematea, da.

Auñera jaraitu baño len adierazi bear dizutet irudi edo plaka batzuek ezin litezkela erakutsi, goiko makinak ondo emango ez litukelako; oñegatik itzalditxo au zerbait moztu egin izan bear det.

Itz batzuek ere erderaz esango ditut, gai onetako itz geyenak oraindik euskeratu gabe daudelako.

Itzalditxo onen amaian, diskoak jartzen ditugunean, al dezuten ixilena egotia otoi egiten dizutet, eta geyago gabe, eta zuben baimenarekin, itzaldiari asiera ematera noa.

Fonografoa zer dan

Fonografoa: ¿itz au zer da eta zer esan nai du berak?

Phone'k esan naidu «abotsa», eta *graphin*'ek «irartzia» edo «idaztia». Fonografoa, oraingo gramofonoaren aurrekoa, Edison'ek mila zortzireun eta irurogei ta emezortzigañen urtean (1878) asmatutakoari deitzen zayo. Zergatik dan izen au, ez da gauza zala ulertzia, orain ikusiko dezuten bezela. Fonografo izena artzen du, membrana deritzayon kutxa txiki bat berakin daukalako eta kutxa onetan soñuba edo erestia indartzen dalako. Membrana edo kutxa onek mutur-mutuñian arantz-antzeko luze bat dauka. Membrana au, irartzeko (grabar) garayan argizai edo paper legun baten gañean gelditzen da. Borobil edo zilindroari jira

batzuek egiñ ondoren abesten ari dan bitartean, oñatz edo muturko burnitxo txikia alako bidetxur bat idazten edo irartzen dijoa, eta argizai legun ortan abeslariak abesten duena bañenen uzten du. Beiñ paperak edo argizayak zeukan neuriya itxura oñetan bete ezkerro, lenengo aldiyan egindako bidetzurian jartzen da beñiro mutur-muturian darimakiten burnitxoa, eta berialaxe entzuten da nola soñu-kutxa edo membranak ekartzen dun abesti edo erestia lenengo aldiyan bezelaxe. Oñ or zer dan eta zertarako dan fonografoa, itz gutxitan azaldu.

Edeskuna

Baña ¿fonografoaren edeskuna nola da? Ikusi dezagun. Mila zortzireun eta irurogei ta amabostgañen urtean, edestiak diotenez, askoren artean, batez ere gizon argi ta jakintsu artean, itzegiten zan, nola eta zer izan ore ziteken itza eta erestia betikotasun guzian gordetzeko asmaketa (invento). Ludi guztian itxoiten zeuden amets oñen asmake-ta. Ordu arte eresi gayan gutxi auñeratu zan.

Eresi-kutxa edo «cajita de música» esaten zitzayona bakarik ezagutzen zuten, eta guztia umekeri utsa, jostalua iduritzen zitzaioten. Ona nolakoak ziran.




Ereski-kutxa (1870)

Amar urtez lenago, gizaseme azkar batek
—Eduardo José Scott, prantzesa berez,

1817'gañen urtean Paris'en jayoa—tresna txiki bat egin zuben eta *Fonoautógrafo* izena eman zion. Garai artarako gauza ikusgarria zan, bañan ez zuben jakin bere lanari jaraitzen. *Fonoautógrafo* onek soñuba irartzen zuben; epel-epel, bañan irartzen zuben beñe-pein. ¿Nola? Tuturutu bati jari ziyon paper borobil bat, eta poliki-poliki membrana lotu ondoren oratz bat ipiñi ziyon, eta oratz ura eñoska edo borobil txiki baten gañean gelditzen zan. Jira batzuek eskubarekin eldu-bideari (manibelari) eman ondoren, Scott jauna izketan asi zan, eta onela ari zala, ariturik gelditu zan muturko oratzak irartzen zuen ibilera ikusirik. Bañan ori egin ondoren ez zekiyeñ nola beñiro entzun lenago irartutako otsa, edo izketa. Oñen asma-keta iluna arkitu zuben, eta ez zan ortik auñeratu. Andik urte ta erdira il zan.

1868'gañen urteko udabeñian, jakin zan Nueva Jersey'n (goiko Ameriketako eñitxo batean) gizon gazte batek lendabiziko fonografoa entzun-arazi zubela. Ziyotenez, guztiz ederki entzuten omen zan auñez

ERESTELKIÑA



Fonoautografo (1873' g. urtea)

irartutako abesti edo eresia. Prantzesak antolatzen ez zekiyeu gauza (Scott jaunak, len esan degun bezela) orixe zan. Laister jakin zan gizon azkar onen izena: Edison. Gizon trebe, azkar onek, asmatu zuben irartutako otsa entzutia; nola izan ziteken, askori buru-auste aundiya eman ziyen. Zue-tako askok sei ilabetetik onuntz irakuriko zenduten, izpañgi edo periodikoetan batez ere, Edison'en lanak ez zubela garai artan beñepein aunditasunik batere, txiripa baten bitartez asmatu zobelako. Izpañgiak edo periodikuak diotenez, Edison bere urutizkiñetako lanean ari zala (Edison ortan guztiz trebea zan) batere uste gabe, jañi omen zituban bere bi eskuk urutizkiñaren plakaren gañean, eta bat-batean entzun omen zuben unetxu batzuk lenago egin zuben eztul otsa. Bañan egiya bere tokiyan jartzeko eta batez ere prantzitañen gogo txaña alde batera uzteko, Edison beraren itzak agertzea obe izango da.

«Nere tresna edo telegrafoaren neurketak egiten ari nitzan—diyo Edison'ek.—

Telegrafoko señaalien ibilera edo martxan, ogeita amabostetik berogei itzera unetxo edo minutu batean sartzen dira; bañan orduko nere tresna beñiak in beñeun baño geyago sartzen nituben. Uñutizkiña oso ikasiya neukan eta ondo ezagutzen nuben norañoko eldutzia zeukan nere tresna beñiak. Ikusiyaz onekin itza gorde litekela, berialaxe deitu niyon nere uñutizkiñeko lagunari, eta oraindik gogoan dauzkat, gaur bertan balitz bezela, nola itzegin genduen.

»Nik esaten niyon:

—»Ziur nago tresna au txukun eta beñi jariko bagendu, jenteak gogoz artuko lukela orain ikusten ari gerana, eta obia izango litzake gai beñiak ekañi eta gauza edertxoagoa egitea.

»Nere lagun Johnson'ek ziyon:


—»Bañan ¿ez al gaituzte erotzat artuko?

—»Tira tira—esan niyon—dirurik ez detala badakizu; auñeratu zaidazu bada, eta irabazia erdibana egingo degu.

»Johnson'ek bayezkoa eman zidan.

—»*All right.*

—»Ederki laguna — esan niyon. — Zuaz bada Nueva York'ara, eta erosi itzazu paper ontan jañi ditudan gauzak.



Edison'en lendabiziko erestelkina (1876)

»Uíengo egunean, nere lagunak ekañitako tresna ayekin egin nuben lengo tresnaren berdin-berdiña, bañan txukunagoa.

»Guztiya ondo jaíri ondoren, iñori erakutsi baño lenago, sayo bat egiñ nai nuben.

»Bildu niyon eíoskari kez belztutako paper bat eta bereala erne ote zegoen begiratu niyon.

—»Zer edo zer abestu zaidazu, Johnson...

»Johnson'ek ez zeukan abesteko gogorik; eztaíri txara zeukala esan zidan. Orduban neronek abestu nuben txiki-txikitandik nekien ume-abesti bat: *Mary had a little lamb*— «Mirentxu'k baidu arkumetxo bat...» Abestu ondoren beíro jaíri nuben orátza asierako leku berean; jura poza..... ura zoramena!. Nik abestu nuben eresia ber-bera entzun genuen. Laguna eta ni zorionez laztan estutu giñan, eta nere asmaketa erakustera joan giñan eíra pozaren pozez.»

Ikusten dezute nola entzun-arazi zuben Edison azkañak irartutako otsa. Edison da beraz lenbiziko asmatzaílea. Bere bizitza guztiz entzungaíria da eta labor-labor azalduko det.

Thomas Alva Edison, ori da bere izena, Ohio izendatzen dan goiko Ameriketa'ko

ERESTELKIÑA



Edison, bere erestelkin edertuba entzuten (1889).

alderdi ederean, 1847'gañen urteko Otsailaren 11'n, Mila'n deitzen dan eritxoan jaioa da. Beraz orain larogei urte ditu. Bere aita Holandatará zan, gaztetan Ameriketara juana. Bai bere aitona eta aita ere zartzera luzekoak izan ziran. Aitona eun eta bi urtekin il zan; eta aita larogei ta amalaukin. Bere ama Eskoziakoa zan, oso sendi beartsukoa. Edison txikitan oso osasun gutxikoa omen zan diotenez, eta ikastolara ez zuben beñere juan nai izaten. Berialaxe ezagutu zitzaiyon fisika eta batez ere urutizkiñetako lanetan zein trebea zan. Etxian ez zioten uzten lan oyetan jartzen, eta baimena eskatu eta bere gurasoagandik alde egin zuben. Edison'ek bere lanari jaraitu ziyon eta andik zortzigañen egunerako arkitu zuben beara. Tximini-gurdi edo tren batean izparingi-saltzale jari zan, iru urtean onela jaraiturik. Lan onekin asko eta asko ikasi zuben eta berak bakar-bakarik, iñortxoren laguntzik gabe izparingi edo periodiko bat sortu zun, berak idatzia, eta berak egindako moldiztegi txiki batean, trenean bertan iraria;

bañan lan onek asko nekatzen zuben eta guztiyak utzi eta beñiro jañaitu ziyon telegrafoari.

1868'garen urteko udabeñian bere eguneroko lanean ari zala, ludi guziari ezaguturazi ziyon fonografoaren asmaketa, len aitatu degun eran. Ordu ezkerro gizon onen asmoa, lana eta lana izan da. Bere mila irureun eta ogei ta bost asmaketak (1325 inventos) ori ongi adierazten dute. Guztiok dakizute bere asmaketa goragañienetako bat zer dan: tximist-argia, (luzel éctrica.)

Erestelkiña ezetzik, eta onen lendabiziko eraz, tajutu zuben iru urte baño lenago biotztuputzak irartzeko asmaketa. Sendagile ospetsu eta ainbeste gaxotetxek dakite tresna ori sortu eta beñitu zanetik zenbat eta zenbat on eta mesede ekañi dituan.

1898'g. urteko erestelkiña

Ikusirik asmaketa au zeñen indar aundia artzera zijoan, gizon aberats artean susmur aundia sortu zan. Liburu eta izpañingi-zaleak

irakuñiko zenduten orain dala aste gutxi,
nola alkartu ziran aytako bost aberats ola



1898'gañen urtean obetutako Edison'en
fonografoa.

bat asitzeko, Edison jauna buru jañirik. Gi-
zon trebe onek egin eta asmatutako beañak
gero eta miragañiagoak izan ziran. Urte one-



tan erakutsi zuben bere argizayezko tubua, erestelkin txukun-txukun batean. Ordurako abeslariak irartu izan nai zuten eta tubua erex eta poliki entzuten zan.

Iru urte bañu jzer mirarik azalduko dizkigun gizon onek! Ala ziyon Jak Miller idazlari argiak, zetoñen *New American Products Exhibition*'i begiratubaz (1901-2). An erakutsi ziran tresna guzien gain-gañekoa *Linguaphono* zala guztiok zioten. Edison'ek, tresna polit ori erakusteko, asko sayatu eta lan egin zuben. Ikastetxe danetan zabaldu zan *Linguaphono*'ren beaña, ikusirik zenbat mesede etoñi aitezken tresna beñi onen bidez. Oñ nola diran gauzak: orduban ikastolarako mesede aundia sortu zuben erbesteko mai-xurik onelaz bear ez zalako eta izkera ikasteko argizayezko tubuak bereala sortu ziralako ikastetxetan. Orain guztiok dakizuten bezela, ez da ikastetxera juan beañik; boro-bilak edo plakak erosi ezkerro, izkera eta beste ainbeste itz gure etxetik irten gabe guztiz argi entzun eta ikasi genezazke.

¿Linguaphono zer da?

¿Zer da *Linguaphono* ori? Bein tresna ikusi ondoren, gauza éreza dala esango genuke.. Baña orain ogei ta amabi urte, Edison jaunak berak askotan esan duben bezela, «egun gaizkor eta urte samiñak igaro izan bear nituban tresna beñi ori edertu eta osa-



Linguaphono

tzen». *Linguaphono*, batez ere itza eta aginduak irartzeko sortu zan. Erloju baten kurpiñak zitun, eta bein jira batzuk eman ondoren guztiz ederki entzun-erazten zituan aúrez

argizayan irartutako itzak. Argizai-tubo bakoitzean irafitakoa larogei aldiz entzun zitekean. Gero, argizai oek toki askotan irartzen ziran, eta batez ere Inglatera'n, Edison'en lenbiziko etofera ezkerro. Izkerak ikasteko bear zan argizai-mordoska bakoitza bere idazti ta guzti saltzen zan; ala, liburuari begira ta tresnak ziona entzunaz, ikasi zitekean itz bakoitza nola esan bear zan. Gaur, ori bera, borobil ederaikin egiten da.

Borobil beñiak

Ikusi dezute bada, len, aro zafean, nolako argizayezko tuturutu edo tubuak ipintzen ziran tresnaren burni-tartean. Guztiz ardura aundiz erabili bear izaten ziran tubu oyek: bultzadatxo edo astindu txiki batek erex austen zitun. Ori gerta ez zedin, zerbait asmatu bear zan bada.

Berliner jaunak, alemanitar trebe eta azkarak, 1898'gañen urtean asmaketa polit bat erakutsi zuen: borobil edo disko zapala. Borobil oiek zirala-ta, gai onetan lege biar-bia-

rekoak jañi zitun Berliner'ek. Irartzeko aro zaña goitik bera beñiztubaz, abotsa eunetik ogei ta bi (22 %_o) altxa zuan. Abeslari eta orkesta edeñak irartzen asi ziran, eta ikustekoa zan jendeak zeñen pozez eta gogoz plaka beñiak erosten zitun.

Plaka beñi oek ondo entzun al izateko ordurarteko tresnak baño obeak bear ziran.

Ameriketako olak eta lantegiak ontan gogor lan egin zuten, eta andik etoñi ziran auferapen aundiko tresna eder beñituak.

1909'ko fonografoa.

Jendeak pozik artu zuan fonografoa, ta oregatik urtetik urtera asko auferatu zuan tramankulu onek. Ala ere, orduko fonografoak ez ziran biziro edeñak, baña Inglateña'ko ola-jaunak (bi ola ziran ordurako) egin zuten batzañaren ondoren, erestelkin beñi, edertu bat sortu zan. Erestelkin aren itxurakoa izan da iudian zabalduena.

Fonografo onek daukan diafragma, Forse ingles azkañak asmatua da. Bañungo tanbor

edo erloju-korapiluba Suiza'ko olan ateratakoa da. Beiñ tanboña lotu ezkerro, bi aldetako diskoa entzuteko aña indar bai du. Agiriyan




1909'ko tonografoa

daukan tuturütuba soñuba pitin bat edertzeko ipiña du.

Tresna au nola ta zerekin egiña dagon azaldu bea'rik ez dago. Guztiok ezagutzen dezute. Euskaleña'n onelako fonografoak dira zabalduenetakoak, eta oraindik ere geyena entzuten diranak.

Diafragma.

Fonografoaren gogoa diafragma da; diafragma du bere anima. Txaña baldin bada, fonografoa ere txaña, zakaña, izango da; eta diafragma ona baldin badu, fonografoa edeña izango da.



Diafragma

Antxiñako diafragmak ez ziran guztik egokik: mika biar bezela estutu gabe zegoelako eta mika edo kristal antzeko borobila mea, aulak, zalako, soñu asko galtzen zituzten. Gaurko diafragma ondo estututakoa da ta soñu izpi bat ere ez du galtzen.

Diafragma beñi onek ez du mika edo kristal antzeko borobilik. Onen ordez metalezko borobila du, bi motakoa, bata goiko notak artzeko ta bestea bekoak jaso ta edertzeko; diafragma oekin ez da ba ezer galtzen. Iraritutako otsa ber-bera, aunditasun guziakin entzuten da.


Mota askotako diafragmak sortu dira, bannen edereña emen erakusten da. Forse azkañak beñiztuba da, ta gaur egunean geyen erabiltzen dana.

Tutuñutuba.

Sube-antzeko bañen-tutuñutuba. (Bocina serpentín). Fonografo askotan, oraiñ arte beñepein, soñuba zuzenik irteten zan, beñ mika ta besoa igaro ondoren. Oraiñ ez. Soñu guziak bere aunditasun eta edertasun osoan jasotzeko, bañen-tutuñutu bat jartzen zayo, eta entzutekoa da auñerapen onek soñuari ematen diyon edertasuna.

Itzotsa dala, abotsa dala, bakañikako edo askoen arteko abesti ta soñu-jotzeak, len baño askoz obeto ta ederkigo ateratzen

dira orain, tuturutu onen bitartez, fonografo-
bañutik.



Sube-antzeko tuturutuba

Tuturutu au ez zaye fonografo aundiyai
bakañik jartzen; baita eskuzko edo alde ba-
tetik bestera eramatekoai ere.

Soñubaren pelikula.

Soñuba irartzen zenbat auñeratu dan, gure
begiz ikusi dezakegu. Soñuben gora-berak
irañita uzteko tresnak badira, ta fonografoak

artzen dituan soñuak irartzeko dagon tresnak ona zer diyon.

Ora or, lendabizi, (A), 1920'gañen urteko tresnarekin irartutako soñubak egiten zuan bidetxigoña erakusten digun irudia.

Ora gero (B) bidetxigor ori ber-bera, soñu ori ber-bera, 1923'gañen urteko tresna batekin artua; soñuba edo musika ber-bera izanagatik, aundituta ta edertuta agertzen da.

Ora azkenik, orixe bera, 1928'gañen urtean artua (D). Auñerapena erex ikusten da.

Era beriko diskoak.

Orain-arte ola geyenak disko zatañak egin izan dituzte; gaña ta bañua gai batekoak egiten zizkiyeten.

Gaur ez. Gaurko diskoak bi zati dauzkate: bat, gaña, eta bestea bañua. Gañak eta bañuak daukaten gaia ez dira berdiñak.

Ikusi zazute or irudian agertzen dan disko ori. Azalak (A), gai batekoak dira, ta gai oñekin egindako azaldun diskoak ez dute ez



A



B



D

txistu-ots eta ez soñu zakañik ateratzen. Bařena (B) gogořagoa eta luzatzalea du. Onelako pasta daukan diskoa, lareun aldiz baño geigo entzun liteke. Ez da eřez austen.



Era beřiko diskoak

Disko oek Columbia-etxeak bakar-bakañik egiten ditu; berak asmatuak dira, ta Donostia'n daukan olan ořelakoak egiten dituzte.

JAUNAK:

Ikusi dezute bada fonografoa lengo aroetan zer zan: gaurko edertasuna eta biyarko daukan etořera edeřa ere bai. Fonografoak etsai asko izan ditu; gure artean ere bai, bañan ori ez jakiñak sortu du, batez ere bear bezelako borobil edo disko euskaldunik

ez zalako eta ziran gutxik txarrik, kaxkarrik ziralako.

Orain bortsu urtetik onera asko zabaldu da Euskaleria'n, eta fonografoari zaletasun handia diote. Donosti'n bertan eunetik eun (100 $\frac{o}{'o}$) irabazi du.

Oso maiz entzuten dit fonografoa Euskaleria'n zabaltzea kaltekoia dela. ¿Zergatik? Ezetz esango nuke nik eta beste geyagok ere bai.

Izkera zabaltzeko eridi guziak eta probintzi geyenak fonografoari begiratu diote eta ikustekoa da zenbat eta zenbat on etori zaizkiyen.

¿Guk ere zergatik ori ez degu egin bear? Galdera ori askotan egin didate emen; guk geroz olan idazti txalogariak artu izan ditugu Irlanda eta beko-Ameriketatik euskera ikasteko diskoak eskatubaz. Alegiñak beraz egin bear ditugu, euskera ikasteko disko oyek irartzen eta biar bezela guziya ipintzen gai onetan. Ziur nago gaur ludi guziyan azaltzen dan euskaltasunak euneko-eun irabaziko lukela.

Euskeraren aldeko bazkunak, ori laister egin dedin sayatu biar dute. Euskera ikas-
teko diskoak egin-arazi, eta orduban, ludi
guziyan, etxerik-etxe, euskerazko fonogra-
foko diskoak entzuten diradenean, bene-be-
netako *Euskal-Esnalea...* egiazko euskal-
tzaleak gerala esan genezake.



IGNAZIO ETXAIDE

TELEFONOAREN

SORTZE TA AURERAPENA

1927'G. URTEKO AZAROA'REN

27'AN IRAKURITAKO ITZALDIA





TELEFONOAREN

SORTZE TA AURERAPENA

JAUNAK:

Txit onragariya neretzat izandu da *Euskal-Esnalea*'ren Batzaírea nizaz oroitzea, itzalditegi ontan exeritzeko, eta ez gutxiago, oraintxe aitu dituzuten itzak eta jo dituzuten txaloak, nik irabazteko ezer egin baño lenago. Naiko nuke benetan ordaña guzioi eman itzaldi eder baten bitartez, aditzera ematen zer izandu dan telefonotza bere asieratik orain arte. Nere asmoak ordia, galerazen aundiyak arkitzen ditu, gayaren aldetik, zaía dalako, eta nere aldetik gauza ez naizelako. Gañera gogoíago egiten du nere lana, oren-

beste jakintzako itzak euskerara biurtu bearizateak. Uste det, bidearen zailtasuna begiratuaz, eřexago emango diezutela barkapena nere ziristadai.

Goazen bada, Jaunak, aurreko itz geyago gabe, gure lanera.

I

Telefonoaren asmaketa

Telefonoaren asmaketa gauza naiko beřiya degu. Geyenetan esan oi da Alejandro Graham Bell'ek asmatu zuela 1876'gařen urtean, bařan badira aurrezko batzuek. Page, jakintsu ameriketařa 1837'gařen urtean konaturatu zan, nola elektro-mataz (bobina) bati oso lasterka, peřaren itxurako burnerakarki (imán) bat urbiltzen bazaio, aitzen dala soņu bat. De la Rive, Gassiot, Mac Gauley eta Neef'ek beste eraz moldatu zuten Page'ren asmaketa ta atera zituzten soņu sendoagok.

Charles Boursel, Prantziko telegrafolarik, aditzera eman zuen nola egin litekean telefono bat, gero Reiss'ek asmatu bear zuenen antzekua, bañan ez zan moldatu egiteko. Azkenen Reiss alemanitarak, 1866'garén urtean egin zuen telefono bat, soñu batzuek eta batzuetan itzak ere bialtzeko gauza zala.

Lendabiziko irudiyan ikusiko dezute Reiss'en asmaketa. (1) Soñuak egiten dira tuaren aurrean; au itxita dago atzeko aldean lauru me ondo luzatutako batez; dardaritzen asten danean lauru me au, dantza-erazten du oratza *c*, elektrobide (circuito) au: luira-elektrokiña (pila)-*d-m-luira*, lasterka irikitzen ta itxitzen. Elektroburnerakarki (electroimán) *m*-ek egiten du Page'ren ekoizpena ta dardaritzen da lauru mearekin soñu berdiñian.


Reiss'ek berak asmatu zuen gero beste telefono obexeagoa, **A**) irudian ikusten dana. Tresna onekin iritxi zuen Reiss'ek itz batzuek bialtzea, ez lengoarekin.

(1) Irudi au ta zenbakiz izendatutako guziak, itzaldi onen bukaeran ipiñiko ditugu.


Eldu gera Graham-Bell'en garaira.

1876'gafen urtearen Otsaila'ren 14'an, bi ordu tartekin, bi azalpenak (memorias) sartu ziran Washington'go asmagiri (patente) lan-tegiyan. Artzaldeko ordu biyetan Alejandro Graham Bell, gor-mutu ikastegiaren maisu-arena. Au zan elektrokiñarekiko telefono batena. Artzaldeko lauetan *caveat* bat (au da, asmaketa bat, oraindik bear bezela osatugabearen beñi artzea) Eliseo Gray Chica-go'ko elektrolariyarena.

Graham Bell'ek beñi artuerazi zuen tresna ikusiko dezute **B**) irudian. Bialkiya (transmisor) ta arkiya (receptor) dira gauza berbera. Tutu bat bere lañu mearekin eta onek dardar egiten duanean erabiltzen du elektro-burnerakarki baten aurreko burniya (armadura). Gray'rena ikusi liteke **D**) irudian; arkiya da elektroburnerakarki bat jañita lañu me baten aurrean, eta lañu onen erdin dago itsasita burni gozozko puskatxo me bat. Bialkiyak dauka beste lañu me bat eta onen zinzilik txotx bat. Txotxa dago uretan sartuta. Lañuba dardar asten danean atera ta sartzen da pitin bat




A) irudia. Reiss'en telefono obeagotua



B) irudia. Graham Bell'en telefonoa.

txotxa uretan eta aldatzen du elektrobidearen zitalasuna (resistencia).



D) irudia. Gray'ren telefonoa.

1876'gaŕen urtean Epaila'k 19 egun zituela Graham Bell zegoen exerita bere telefonotzar auŕean Boston'go ganbaratxo baten. Bere mendeko laguntzale bat, Watson zeritzana, aldameneko gela baten zegoen, eta

oni esan zizkion itz abek: *Atoz Watson jauna; bear zaitut*. Telefonoak bialdu zituen itz abek eta Watson etoři zitzaion ańiturik, aitu ziolako bere nagusiari itzegiten, etzegoen tokin.

Esan oi da asmatzaileak gutxi maitatubak dirala gure Españian; nere iritziz obeto esan liteke, toki guztiyetan asmatzailea izatea dala zorigaitz gogořena. Ameriketara zan Bell eta txuri jo ziyon noski bere asmaketak, gauza oso argiya izan ařen. Eraman zuen bere telefonoa Filadelfia'ko Erakustokira eta an eman zioten txoko ilun bat mailadiaren azpin; egunak joan eta egunak etoři eta an zegoen gure Bell gizajoa; iya ińor ez zitzaion uřeratzen bere tresna ikustera. Eldu zan azkenen sari zabalketaren eguna. Erakusketa- ren Batzaraea an zebilen jo bat jo beste, lanez itoka, ta bost ajola zion Bell'en tresnaz. Bańan, ořa noiz sartzen dan Erakustokian Brasilgo Emperadoria; ikusi onek Bell'en tresna, itzegiten jańierazi, eta ańiturik gelditu, dena bat izandu zan. Ikustaldi onek erabaki zuen telefonaren ondorea; eřitaraak

ez zioten Bell'i lagundu; arotz batek on egin zion.

Alaz ere Bell'ek auzi bat bear izan zuen Gray'rekin beren asmagiri oberetsiaren gañean. Washigton'go epailariak erabaki zuten Bell'en alde, bi ordu lenago bere azalpena sartu zuelako, ta gañera asmagiriena zalako, ta ez *caveat*'ena. Oraindik ibili zan auziya epailarien eskuetan; Bell'ek auffera- pendu zuen bere tresna; Gray'ek baterez. Azkenean asmatzaile biyak konpondu ziran elkarren artean eta lagundi batek berak erosi zieten asmagiri biyak.

2'gañen irudian ikusiko dezute Graham Bell'en izaizuna telefonoa asmatu zuen garayan.

Graham Bell'ek lenbizikotik sumatu zuen zer izango zan bere asmaketa etorkizunean, naiz asiera zala arkitu zuela. 1878'gañen urtean zegon Kensignton'en (Ingalateña) alegi- ñak egiten (alpeñik ordea) dirua arkitzeko Ingalateñako aberatsen artean, eta andik Epaila'ko 25'an eskribitzen zuen era onetan:

«Bidezko gauza dala, pensatu liteke, jartzea ari-

sañak (cables) naiz lur azpin, naiz zinzilik goi xamar, eta ayetatik sortutako adafetaz batu eriko ta zelaietako etxeak Erdiki (Central) bati, ementxen ariyak eraxteko nai bezela, elkafekin itzegiten jartzeko eriko edozein bi toki. Alako asmoa naiz oraindik bete ezin litekena, uste det aloterik gabe, izango dala telefonoaren etorkizuna jartzen badegu eritañen eskuetan. Ez ori bakafik; nere ustez, etorkizunean arisañak jañiko dira erien erdikien arten eta ala gizon batek itzezin lezake edozein toki batetik, beste urutiko edozeitara.

»Konturatzen naiz, nere sumaketak irudituko zaizkizutela ametsak. Alaz ere, nere ustez, bidezko gauza izan añen antolatu dizutedana, nai nizuteke agiri-agirin jañi, beteko dala orain telefonoari eskatu genezaiokean guziya, nik aditzera eman detan telefono-sare aundiya egiten baldin bada.

»Ala bada, nere iritzian, telefonoa jañi bear zan bereala eritañen eskuetan elkar batutzeko diruetxe jabeak, artu-emalarik, saltzañeak, lagundik, eri-zaintzategik, albistekien langelak, gaixo-etxek, batzañe ta agintari-etxek, eta erabiñi burnibideko, meatze ta beste gañerako lantegiyetan.

»Orain telefonoa zabaltzeko egokitasunik baldinbada, uste det geyago izango dala etorkizunean.»

Bere sinismen aundiya ez ziyon utsegin eta, asmatzañe askok irixten eztutena, ikusi zituen bere sumaketak, ez beteak bakafik,

baita jo ta pasiak ere. Bell ta Watson 1915' gañen urtean joan ziran ikustera New-York-San Francisco telefono-bidearen erasi-pena (inauguración). 4.300. km. baño geyago zituana luzean. (Begiratu 3'gañen irudia). Maña beteak dira telefono-bideak, eta utsune ditutenak telegrafokoak. Biribiltxoak dira abots-aunditzaileak (amplificadores) tarteka jarriyak.

4'gañen irudian ikusiko dezute Graham Bell'en izaizuna bere zartzaroan.

II


Telefonoaren aurerapena

Bell'ek Watson'i lendabiziko aldiz telefonoz itzegin zionean ez zuen erabili len ikusi degun asmagiritutako telefonoa, baik orain ikusiko dezutena (5'gañen irudia) Bialkiyak dauka burni me bat elektro-burne-

rakarki baten aurrean, abotsak dardar erazten duena. Arkiyak dauka beste elektroburnerakarki bat. Bañan Bell'en aurreapen aundiyena, gero premizko gauzetan inortxok garaitu eztena, da burnerakarki iraunkorrezko arkiya (6'gañen irudia). Bialki bezela erabili liteke ere arki au. Gaurko arkiyak ezte ezertxore obeago, onek baño, gauza txikiyetan baizik. Erreparatu zuen Bell'ek elektrokina, lengo telefonoetan, burnizko muña burnerakarkitzea besterik ez zuela egiten. Ortik burura etoñi zitzaion burnerakarki iraunkora (permanente) jartzea. Eta alaxen, geroko ikasketak erakutsi dute, arki bateneragindasuna burnerakarkitasun tanke-ran iyo edo jexten dala.

Bañan Bell'ek asmatutako telefonoa, arki bezela garaitu izan eztena, bialki bezela argala zan, indar-ituñi bezela abotsa bera zuelako. Oñela egongo zan luzaroan telefonotza aldapen egin gabe, 1877'gañen urtean Hughes'ek mikrofonoa asmatu ezpalu. **E)** irudiak erakusten du Hughes'en mikrofonoa) Da ikatz luzetxo bat, bi ikatzazko orpoken

tarten zutik jařita, ikutze txar xamařa egiten ikatz oyekin. Tresn onek ateraerazten ditu,



E) irudia. Hugues'en mikrofonoa.

soñu galantak arkiyan, elektrokiñaren indařaren bizkařez, begi-aũrean jaři litekean be-

zela e'elojo bat olaren gañean ja'rita; bere tik-tak aitzen da txit aundituta.

Lendabiziko mikrofono onek zuen, jakiña da, indar txikiya oraingokoen ondoan. Orain egiten diranak dute ikatz txea eta dira askoz zailagoak egiten, zati askokoak dira-ta.

7'gañen irudian ikusi zenezakete mikrofono Ericson batek dakazkien zati guztiyak; mikrofono oyek dira Donosti'n ta inguruko e'riyetan zabaldua daudenak.


Ikusteko telefono egintzaren au'rapena naikoa da irudi batzuek agertzea.

8'gañen irudian ikusiko dezute oso zabaldua egon ziran telefono batzuek «pupitre»-kok izendatutakoak. Oyetatik ikusten ziran oraindik batzuek Donosti'n 1908'gañen urtean, Ayuntamiento ta Diputazioak beren telefonoen eskubideak artu baño lenago. Itzegiten zan «pupitre» o'ren gañen, dala ol me bat bere azpin josita mikrofonoa daukala.

F) irudian ikusiko dezute ormako telefono bat mikrofonoko ol mea zutik daukana.

9'gañen irudian maigañeko telefono bat,

1891'gaŕen urtean jartzen zana. Onek ere mikrofonoko ola zutik dauka. Ezkeŕeko al-




F) irudia. Ormako telefono bat.

den zinzilik daukan arkiya da burukoa eta daukazki bi tututxo paŕegaŕi belarĭetako

zuloetan sartzeko. Telefono oyek guziyak zeukaten mikrofonoa ikatzazko txotxakin eginda (10'gañen irudia).

11'gañen irudiak erakusten digu mikrotelefono pañegañi bat 1882'gañen urtean jartzen




G) irudia. Ikatzazko mikrofonoa.

zana. Mikrofonoa da ikatzazko txotxazkoa, orduan ezautzen zan mikrofono mota ba-kaña (G irudia). G dira ikatzazko txotxak beste ikatz puska *cc*'kin ikutze txaña egiten dutela.

I) irudia da telefono alemanitar bat 1897'gañen urtean egiten zana, ta naiko au-



ferapenduta len ikusi ditugunen ondoan. Dira arigariyak belariyetako ikaragari oyek, pelotan aritzeko palak ematen dutela. Ale-



I) irudia


Telefono alemanitar bat.

manitarak dira beti gauza sendoen zaleak eta oraindik ez tute baztertubelaritako aundizar izugarri au. Ez dizkitet erakutsiko orain jartzen diran telefonoak alpeirikako lana dalako; guziok ezagunak dira.

Telefonoakin batera, erdikiyak egin zuten beren aufferapena.

J) irudiak erakusten digu 1884'garen urteko erdiki bat, izugarri zabala te-

lefono gutxiri bidea eman aŕen. Goiko alder-
diyan dei-erakuskiyak (anunciadores). Tele-
fono batetik deitzen danean, erakuskiyak
erortzen uzten du laukitxo bat eta erdikiya
mirabetzen dutenak ori ikusi ezkeru eran-
tzuten dute. Erdiki onek eztu, oraingoak be-




J) irudia. 1884'ko erdiki bat.

zela, *jack* deritzaten tresnak. (Gero eraku-
tsiko diz utet nolakoak diran).

12' gaŕen irudiak erakusten digu 50 telefo-
noentzat egindako erdiki bat, 1890'gaŕen
urtean lanean ari zana. Auŕerapen aundiyak

ditu. Goyen daude dei-erakuskiyak; oyen azpin *jack*'ak. Azpin lokafiyak telefonoak elkar itzegiten jartzeko. Irudiyan ikusten dira bi telefono-bide batutak.

13'garén irudiak erakusten du 80 telefono-




K) irudia. *Jack* deritzaion tresna.

etarako erdiki bat, dei-erakuskitzat argiyak dituela, dirala bonbila txiki-txiki batzuek, zine Baby'k dauzkaten bezelakoak, bañan txiki-yagok orandik.

Tresna bear beařekoa erdikiyetan da aita-tu degun *jack* ori **K)** irudia) Telefono-


aren bidea bukatzen da bi mutur luzetxoetan. Ziria sartzen danean, onen burutxoak ikutu-tzen du mutur motxena eta soñak luzeena.



L) irudia. Telefonoak nola batutzen diran.

Jakiña, soña ta burua bata besteaz bakartuta dira ebonita edo beste alako bakargañi batez. Bi ziri daude lokañi batera eratxitak eta aren

bitartez telefonoak batutzen dira **L)** irudian ikusten dan bezela. Elektro-burnerakarkizko dei-erakuskiyak ikusten dira **M)** irudian; bi erakuski-mota daude irudi artan, bañan egiya garbi esatekotaz, biyak berdintxoak dira, aua da, elektro-burnerakarki bat telefonoaren deyak eraiten duena; ordun



M) irudia. Dei-erakuskiyak.

bira egiten du atzen dan burnitxo batek, altxatzen da atzetik aurrera jarita dagoan oratza, eta erortzen da aurreko laukitxo.

Urietako telefonoaren aurrerapen aundiyena izan da, dakizuten bezela, telefono mirabetzegabea edo «automatikoa». España'n lenbizi jarri dana Gipuzkoa'n jarriya da, Donosti'n ta

inguruko eriyetan. Oraintxe ikusiko dituzute telefono onen tresna batzuek. 14 ta 15'gañen irudiyak dira Donosti'ko erdikiaren ikuste batzuek.

16'gañena Probintziarena, Donosti'n jañita ere.

17'gañena Pasai'ko mendeko edo «satélite»-arena.

18'gañena elektro-bilkai (acumulador) sailarena, eta 19'gañena Errenderi'ko lauki ta zamatzeko ta deya egiteko «dinamoak».

Mirabetzegabeko telefonotzak dauka alde on bat, dala maxura gutxiago izaten duela, emakumez mirabetuta dagoanak baño. Gure probintzian agirin jañi degu alde on au, maxura guzien kontu eramaten degulako. Lauki ontan ikusiko dezute gertakaia:

**Telefono bakoitzaz izandako
maxurak (1926)**

	Len (mirabetuta) 1.º 6 iiabetekoa	Orain (mirabete gabe) 2'g. 6 iiabetekoa	Gutxiago orain	Geyago orain
ERDIKI				
Mirakruz	6,30	2,39	57 %	—
Pasai	4,15	1,35	67, 6º/º	—
Erenderi	4	1,65	59 %	—
Ernani	1,96	2	—	2º/º

Ikusten dezute nola erdiki guzietan asko gutxitu dirala maxurak, Ernani'n ezik, eta gutxipen ori aufferontzean aundiyagoa izango dala uste det, asierak beti garai txarénak diralako gauzak bear bezela ibiltzeko. Ernani'n ikusten da geigotu dirala maxurak uskeritxo bat, bañan egiya garbi esatekotaz, beñere ez zuen izan Ernani'k oren maxura gutxi mirabetutako telefonoarekin; 1924'garén urtean izandu zituen 3,82, ta 1925'garénean 4,05; 1926'garéngo lendabiziko sei ilabetetan gertatu dana ematen du bidegabeko gauza, bi aldiz gertatuko eztana.

Eriarteko telefonotza, eribañenekoarekin batera auñera joan da. Bell asi zan Watson'ekin iru metrotara itz egiten 1876'garén urtean, eta orain itzegiten da San Diego Kalifornia'kotik Kuba'ko Santiago'ra, 9654 km. aotsa ibilita.

Iru tresnak ekañi dute eriarteko telefonotzaren auñerapena. Arisaila edo «cablea», Pupin-matazak, eta abots-aunditzaileak, radio'n erabiltzen diranen antzekoak.

Arisailak alde on asko ditu; eztiote gale-

razten indar eramateko ariyak, ezta beste telefonokoak ere; eztauka iya beñerez maxurik; izketak ez dira nasten ari batenak eta bestenak; egiten dira ziurki «fantasma» deritzaten telefono-bideak, (circuitos telefónicos) au da, bi bidekin iru izketa batera, laukin zazpi eta oñela. Ezta zer esanik nola-ko bide ematen dion zurtasunari era onek.

Pupin-matazak dira elektro-unearen ekoizpen kaltegarriya gutxitzeko. Arisailak egiten dira orain, egiya da, elektro-une (capacidad electrostática) gutxikin, bañan, alaz ere, geyegi, urutira itzegiteko.


Azkenen, abots-aunditzaileak eskua ematen dute iya nai guziya telefono bide bat luzatzeko. Abotsa argaltzen danean iyotzen da; beñiz argaldu danean, beñiz iyo ta oñela.

N) irudiak erakusten digu 500 bikoe-tako arisail bat. Tanto txuriak dira kobrezko ariyak; inguruan bakartzeko papera. Arisail onen lodiya da 9 cm. bezela, mila ari bañenen dituela.

20'gañen irudiak erakusten digu arisail ori bera ariyak oñaztuta dituela, beste puska bati

eratzitzeko presto.

21'gañen irudiak erakusten dizkigu bi Pupun-matazak, bata bestea baño aunditxoagoa.





N) irudia. 500 bikoetako arisail bat.


22'gañen irudiak erakusten dizkigu sei abots-aditzaile, beste ainbeste telefonobideetan lan egiteko.

Bukatzeke, 23'gañen irudian erakusten dizutet nola dagoan ugarituta telefonoa munduan. Irudiak erakusten du zenbat telefono dauden kilometro laukiz. Gipuzkoa'k dauka emen toki onragariya, bañan baditu batzuek aurretik dijoazenak, eta oraindik batzuek geyago izango ziran kontua aterata, ez kilometro laukiz, baizik mila biztanlez, Gipuzkoa'k biztanle askotxo dituelako. Asko egin degu orain arte gure Gipuzkoa maitean telefonoa zabaltzen eta aurreratzen, bañan oraindik asko egin genezake. Uste det emendik aurrera alegiña egingo degula ere, Gipuzkoar on guziyak lagunduaz.







1'go irudia. Reiss'en asmaketa




2'g. irudia. Graham Bell, telefonoa asmatu zuanean




4'g. irudia. Graham Bell zartzaroan.




5'g. irudia. Bell'ek Watson'i itzegiteko erabiñ zuan telefonoa.




6'g. irudia. Burnerakarki iraunkořezko arkiya.




7'g. irudia. Mikrofono Ericson baten zatiyak.




8'g. irudia. Pupitredun telefonoa.




9'g. irudia. Maigañeko telefonoa (1891)




10'g. irudia. Ikatzazko txotxakin egindako mikrofonoa.




11'g. irudia. 1882'g. urteko mikrofonoa.




12'g. irudia. 50 telefonoentzat egindako
erdiki bat. (1890)




13'g. irudia. 80 telefonoetarako erdiki bat.




14'g. irudia. Donosti'ko erdikiaren ikuste bat.




15'g. irudia. Donosti'ko erdikiaren beste ikuste bat.




16'g irudia. Probintziak Donosti'n daukan erdikiaren ikuste bat.



17'g irudia Pasai'ko mendeko edo «satelite»




18'g. irudia. Elektro-bilkai (acumulador) saia.




19'g. irudia. Efenderi'ko lauki ta dinamoak.






20'g. irudia. 500 bikoetako arisail bat,
ariak ofaztuta dituela.




21'g. irudia. Bi Pupin-matasa



22'g. irudia. Sei abots-aditzaiĕ.

Telefonoak Km. laukiyan



23'g. irudia. Nola dagon ugarituta telefonoa munduan.

ORMAETXEA'TAR N.


ORAINDAÑOKO

EUSKAL-NEURTITZAK

1928'G. URTEKO AZAROA'REN

25'AN IRAKUÏITAKO ITZALDIA





ORAINDAÑOKO EUSKAL-NEURTITZAK

Gizasemeak, emakumeak:

Zuetan bakañen batzuk ba dakite, joan daneko alditxo batean bertsoakin asañe-samar ibilia naizela, ta ez naizela oraindio osotara adiskidetu. ¿Zertako aukeratu det bada gai au? Bertsoakin asañe egon ba naiz ere, ez bertsolariekin, oetan ere bai baititut adiskideak eta nerau lenik nere buruaren adiskidea, nik ere egin izan baititut. Beaz barkatzen diet gizajoai, nere buruakin batean. Adiskide oietako batzuk, alegia, esan izan didate gai au argitzeko: oraindaño zer egin dan; zertan utsegin dan; auñera zer egin ditteken. Agindu onek erakusteko ematen didan aize-pixkarekin, asiko naiz bada oraindañoko euskal-bertsoetaz itzegiten.

Euskalería'n, batez ere Gipuzkoa'n, ba da

gazte-sail edeña, biotzaldi beroak neurtitzen bidez agertzen dituna; oientzat ariko naiz, oiek bañenean dadukaten su-gaña itzali baño piztuago-naiean. Oeri zor diegu gure begiratu samuña, gure eresi gorria. Lengo igitatsoak egin zuna egin nai nuke gaur oiekin. ¿Zer egiñ omen zun gure igitatsoak? «Galdegin omen zioten ia nola azi zun ainbesteñoeko ume-sala, ta: *¡Ai Mari Martin! Aundiena kolpátuz eta tipiena maitátuz*. Oraindañoeko bertsolariak ez ditut kolpatuko, baño gure atzetik datozen gazteak bai maitatuko, euskaldun bertsolarien eñoialdea edo familia ugaritu dedin. Oraindio gazte-ustean eta gaztetu-naiean dauden zañak ere ez ditut alde batera utziko. Bertsolarien biotza ez da beiñere zartzen. Oraindañoeko neurtitzak artu ditut gai, ez noski neurtitz oietan ageri diran gogapen edeñak, iduri-antza txanbeliñak, biotzaldi beroak; ez bertso oien mamia, azala baño; ez neurítakoa; neuria bera. Ala ere, erakusbidetako dakartzidan bakañak, euskeraz egin diranik oberentsunak izango dira, mintzaldi legor au ezatu dedin.

¿Nondik ote dator neurtiz-gite ori? Izkuntzak berekin ez dakañela agerian dago beti agokaldi edo ago-kolpe berdiñetan, edo biz batean buka-berdiñetan, ari izatea. Itzak, berenez, batzuk luzeago, besteak laburago; batzuk alako bukaera, besteak olakoa. Itzen leñoxkatze ori ez da noski izketak berekin dakañena. Baño... kantak omen dakar, eta kanta berez bezela sortua baita, leñoxka-egite ori ere berez etoñia omen da. Ala diote leñoxka edo bertso-zaleak. Baño ez dira zuzen ari; kantak ez baitakar, alegia, leñoxka berdiñez eta neurtuz aritzea. ¿Ez al diteke bada kantatu neñigabeko itzetan ere? Elizarenai begira. ¿Mezaren sañeratik asi ta azkeneraño: Kyrie, Gloria, Credo, Sanctus, Benedictus eta Agnus neurtu-itzetan al daude? Aspaldiko eñietan ere etzuten len-lenago beintzat, neurti tzetan kantatzen; ez neñi estu-estuan, berdiñean beintzat. Oraintxe ere, euskal-kantutegia irauli ba degu, arki ditzakegu ezpaña berdiña ez duten leñoak. Dantzak bai, neñi estuagoa nai du, ta esango nuke, dantzaren etorkia dala leñoxka

berdin ori. Ta ala ere ez da nai ta nai ez'koa neuri berdiñ-berdiña izatea. Naiz kantak, naiz kantatutako dantzak artzen ditu leñoxka edo bertso berdiñezak, musika berdiña izanik ere. Itz-atal edo silaba bakoitzari bere nota ematen ba diogu ere, notak ez baitira iraute berdindunak —beltxak, esaterako, bi kakoxdun balio baititu — bai ordea euskeran itz-atalak, euskerazko itz-atal bakoitzari nota kakotxaren irautea ematen ba diogu, bi kakotx-erdik bi itzatal bearko ditue. Ona emen leño oiek neurtzeko bi bide: lelotarako edo kantatzeko egin diranena, ta esateko edo irakurtzeko egin diranena. Begira ikusburu bat. Bedi zortziko au:

Goñiti'ko mutiak
Uitzi'n galdetzen
ia lizar gazteak
no (la) diran aldatzen...

Irakurtzeko, mintzatzeko, laugarren leñoxka ori oker egiña dago, itzatal bat gañez baitu; baño kantatzeko ez dago gaizki, «nola» ori nota beltxaren irautea erdizkatzen ba zaio.

Oso ondo ta berdiñ eginda ere, leño batek

eta leño mordoxka batek neurkera bakoitza ar dezake. Tarte-neuría nolakoa ematen zaion dago ori. Iru bosteko amabost dira, kanta zañak dion bezela, baño bost iruko ere amabost; eta ba liteke tarte-neuría irukoa izatea, bai bostekoa ere. Zer igikera, zer joera edo ritmo ematen zaion ikusi bear, eta leñoxka-lagunak nola irakuñi ditezken. Geroxego ikusiko degu zortziko bat bera bost edo geiago aldetara nola neurtu diteken, musikari gagozkiola. Esateko edo irakurtzeko bertsoak, ordea, ez dute ainbeste aukerako neuririk; zurunagoa baño. Beaz ez diteke eskuarki alde batetara bestetara neurtu. Oregatik aspertzen naute ni: beti batean ari diralako, ta mintzoari ez dun zuruntasuna ta gogortasuna ematen diotelako. Kantatzeko onartzen ditut bai bertsoak, baño irakurtzeko... gutartean oraiñarte egin diran geienak ez beintzat.

Oraindaño egin diranetan, neurí berezia edo bakoitza dutenak irakuñi-uste ditut eta ozta-ozta ageri da aukera aundirik, zortziko aundia ta txikia lekutzen ba ditugu. Batez

ere zortziko aundi ori, lo-argari ori, sartu zaigu ezufetaraño, kantan euskaldunena baldin ba da ere.

Neurtitzetan aukerarik aundiena Oihenart'ek utzi zigun, ta ordudandik onera ez da ezer aundirik azaldu neuñi kontu oñetan. Dechepare'k, Oihenart'ek eta Adema-Zaldubi'k egin dituztenak irakuñi ezkerro, gañerakoak ikusirik daudela esan diteke. Ikusi ditzagun banaka.

Ez dakit iñoiz begi eman diozuten arako Beotibar'ko kanta zar ari. Zortzina itzatal edo silaba ditu bertso bakoitzak, erabat laburagoakin edo luzeagoakin nastu bage. Dechepare'k ba ditu naste.

BEOTIBAR'KO KANTA.

Beotibar'ko zelaiak
len iñunak, gaur alaiak.
Beotibar'ko arkaitzetan (1)
frantsesak gure oñetan.

Año asko sartu ziran
umiñ asko irten ziran.

(1) Bi silaba batean artu bear diranean, letra okertxaren bidez bereziko ditut.

Oñaz agintari *aundia*,
¡zuretzat gure bizia!
¿Nora zuaz Oñaz jauna,
frantses-jende arengana?
Elur-maluta *ugaria*,
ugariago etsaia

Lafean emaztetxuak,
begian negar-malkuak.
¡Atoz lenbailen etxera,
bestela oso galdu gera!

¡Añera, mutil maiteak,
etxera doñorkumeak!
Iñ emen edo garaitu.
Oñaz jaunak esaten du.

¿Zein gelditzen da atzian
Oñaz ikusi *ta añaian*?
Zu zera nere nagusi;
zurekin iñ edo bizi.

Jun dira emendik betiko
ez dira *iñoiz* etoñiko.
Beti euskaldun mendiak,
ez besterentzat gaziak.

Zortzi agokaldi edo silabadun bertso au
banaketan erabili dute gure olerkari ikasiak.
Ez dirudi bada irakurtzeko ain motela. Oñe-

lakoak irakurtzean oartu naiz, irakurtzen eřazagoak dirala bertso atal-bikoitzak eta bai bakoitzak ere, erabat berdiñak ba dira. Amarna silabakoak zortzikoakin naste — zortziko aundiarenak — lo-ařerazteko edeřak dirala esan dizuet; baño erabat amarnakoak ainbestekoak iduri zaizkit:

Ařuitz-aldean izandu dela
amar ezkutu galdu řuela
galduak galdu; galduen pena,
iñork yakite (a) nai etzuená.

Oek inguru aundiaren edo bigařen inguru-txoaren bertsoak dira.

Euskeraz egin dira sei silabako bertsoak, ahapaldi edo estrofa osoan erabat seirekoak, eta irakuři ditezke alde-aldera. Ahapaldian elkařekin nasten asi ezkerro, ez da komeni bigařen bertsoa lenengoa baño motxagoa izatea: silaba batez edo geiagoz luzegoa izateak ez du nere belařientzat eraberik:

Ene senar au iřotzik,
nerau iletaz yantzirik,
aur gaixo auek umezurtz,

laratz-ondoa otz ta uts;
¡Gogor akigu, erio!
Antzi animari berio.

Zortzinakoak dira lau, ta boskařena bederatzikoa. Kantatik artu dira oek ere. Itzak Azkue'renak dira, bařno kanta zařa da. Gurre poetak saia litezke kanta zar oen araura bertsoak egiten. Ala ere entzun Oihenart'en neurtitzok, zortzi atalduna zazpikoarekin naste, biz batean:

Margarita, badaidita
othe huts zin egitez;
begiz hurdin bezain gordin
zarela zure egitez?

Bertze lanik ba duta nik
diela *hanbat* denbora,
zure *arthatzez*, zerbitzatzez
eta *onhestez* kanpora?

Oihenart'ek bi launakotan zatitzen ditu lenengoa ta irugařena; bařno belarirako berdin da. Beti ere ahapaldi au zortziko txikia bařno ariřago gertatzen zait.

Oihenart'i gagozkiola, ikusi ditzagun neurtitz banagoak edo bakoitzagoak: erabat bos-

nakoak, seinakoak, zazpinakoak, zortzina-koak.

Bosnakoak.—Ona bosnako neurtitz batzuk.

Nahiz ezpegi
gaüz ilhargi
ni zure begi
edeñez argi;
heien gordatzen
ezpazina hari
beti miratzen
dagotenari,
zuk hori egiten
bezanbatean,
eri etziten naiz
bihozminetan.....

Bi bertso batean artu ezkerro, zañaldaxego ematen dute amar ataiekoen antzera, ta zortziko aundiaren tayua dute.

Seinakoak.—Banaka batzuk ekañi nitza-ke, baño amabinakoak dakartzidanean—aiek erdian etena baitute—ikusiko ditugu.

Erabat zazpinakoak.—Ona auek:

Aspaldian nabila
hor, heben, laztan bila,

eta orai nahi nola
batu naiz batekila.

.....
Haren eder izana
da hain gauza bakhana,
ezi eztula kiderik
baita yenden eřana.

Zortziko txikiaren joeratxoa ba dute zazpi
ataldunak diran ezkerro; bařno irakurtzen eřa-
zagoak dira.

Erabat zortzinakoak. — Irakuři ditu len.
Beotibar'ko kantarenak. Ba ditu ere bakar
batzuk.

Aspaldi neure gogara
libertatez *bizi* izanik,
orai dakusat hartzara
neure burua *atzemanik*,
gotor eta gor izatez
galdu nahi n'aien batez.

Eřan ba derauket ezi
oro harena naizela,
nehor ere *hura* berezi
onhetsirik eztudala;
bana hořegatik *hura*
ezta nizaz ařangura.

Bederatzinakoak.—Oetatik apika dera-
bil, baño ahapaldian naste bai:

Zenbait leihofa zabal baita,
ehon erakutsiko zaita.

Aezkoa'n eta inguruetan kantatzen da
ahapaldi polit bat, beratzikoa launakoaz
naste:

Gizona ¿non duk zuhurtzia?
¿ez al dakik
ez dela deusere bizia
khea baizik?

Iguin zak bihotzez mundua
oraidanik;
erioa duk hurbildua
ireganik.

.....

Amarnakoak.—Amarnakoak naiz bosna-
koak izan, berdintsu dio, erdian etena bai-
tute auek ere.

Amaikanakoak.—Auek ere ez dira bere-
ziak: boskañen atalaren ur̄ena edo utsartea
egiten ba da, Alkaio'ren bertsoa gertatzen
da ur̄engo sei silabakin:

Qualem ministrum—fulminis alitem

edota Sapho'rena:

Integer vitae—scelerisque purus

ta seigañenaren ondoan egiñ ezkerro, bostekora ta seirekora jotzen dute.

Amabinakoak.—Erdian etena edo ixilgu-nea dute. Oihenart'ek gutxi ditu erabat ama-
binakoak. Adema-Zaldubi'k geiago, ta ede-
rak ala ere, *Jesusen azken-afaria* esate-
rako. Eliz-himnoen antzera egin zitun, eta
beaz ugariagoak eta banakoitzagoak. Ama-
binako auek oso ariñak dirudite, baño auek
ere egiz edo iduritzuz lau indar-mintzara edo
azentu indardun ditute bertso bakoitzean.
irugañen silaba'kal banatuak. Edo azentu in-
dardunik ematen ez ba zaie ere, dutelazko
iduritua kentzea ez da eraz. Zaldien laugaña
gogoratzen dute:

Gurutzean Jesus odolez ustuz zen;
odol bera dugu Mezan ezagutzen;
bainan Mezan ez du odolik ixurtzen:
pizturik, ez baita gehiago iltzen.

Huna aingeruen ogia non dugun
zeruko bidean azkuri ta lagun.
Nor ere ez ba da garbi, ez fededun,
hortarik jan gabe geldi bedi hurun.

Oihenart'ek hamalaurkuna edo sonettoa du
erabat amabikoa, Asklepiade-antzera, bañan
ikusazue nolako ahapaldia ateratzen dun bi
amabinakoz eta bi zortzinakoz:

Ikus, yende honak, ikus ene pena,
altxatzen darote nik nuen maitena.

huñen uste nuenean

haur dakusat huñunean.

Gau egun, goiz arats, edate yatean
ebilte, gelditze, yaikite etzatean

zuzaz dizut pensamendu,

ene penen luzamendu.

Ikusi ditugun bertsoetan, nere belarñien-
tzat, erabat seinakoak, edo erabat zortzina-
koak — bakañik erabiltzekotan — edo erabat
zazpinakoak edo erabat amabinakoak, ira-
kurgafi dira. Naste ere erabili ditezke, baño
ez biz batean: batzuk auñena, erabatekoak,
eta gero bestekoak, jokera oso okeña ez ba
dute batak bestearengandik, edo alde asko-
takoak ez ba dira. Ez det esan nai luzegoak

edo labuñagoak; oso berdiñezak izanda ere joera bera edo ritmo bera izan bai dezakete. Ba du Oihenart'ek bat biurri-samaña: lenengo biak beratzinakoak, irugañena bostekoa ta laugañena zazpikoa, ta uringo biak ere bai.

1 Zenbat leihorá zabal baita

2 ehon erakutsiko zaita

3 anderaurenik

4 ez eta neskatorik

5 ni naizen bezain

6 zori gaiztotakorik.

7 Maite dut eta naiz maitatu

8 bana naiz ainbat desditxatu

9 ni maite nuen

10 ni maitenik dudana

11 ezta ehon auzu

12 hurbiltzera nigana.

1 — vv / — — / — — / — — (1)

2 — vv / — — / — — / — —

3 — vv / — — /

4 — — / — — / — — / —

(1) (— —) ren balioa edo irautea, alde-aldera, musikako bi *negra*'ena.

(— vv) ren balioa edo irautea, alde-aldera, *negra* bat eta bi *kortxea*'ena.

- 5 — vv / — —
 6 — — / — — / — — / —
 7 — vv / — — / — — / — —
 8 — vv / — — / — — / — —
 9 — vv / — —
 10 — — / — — / — — / —
 11 — vv / — —
 12 — — / — — / — — / —

Ahapaldi onetan irugañen bertsoa ta boskañena, beste joeradunak dira: erabat espondeo-joera (— —); gañerakoak lenengo oiña daktiloa (— vv) alde aldera.

Torizue beste ahapaldi bat:

Oi lenengoz ama danan zoriona
 ¿Nork azaldu oso poz ofen sakona
 ¡O! lenengoz bere semea
 besoetan daukon andrea!

— vv / — vv / — vv / — vv
 — vv / — vv / — vv / — vv
 — vv / — — / — — / — —
 — vv / — — / — — / — —

Bi azkenak ere daktilo joera artzen dute lenengo oiñean, baño espondeora erortzen dira bukatzeko, ta egoki. Aipatu ditudan

neurtitzok Bizkaiko *Lau.reta*'renak dira. Agitz poliki ari da au, nor ba da ere. (1)

Bakoitza saia bedi ta arkituko ditu aha-paldi politikak. Lenengo bertsoa baño bigarrena agokaldi batez motxagoa ba da, kantatzeko artu diteke zortzikoetan bezela: ez irakurtzeko. ¿Zergatik ote? Erderazko indar-acentuak bi itzatal balio ditu bertso-azkenean, edo bertso erdian, etenduna baldin ba da. Euskeran ez da olakorik berez gertatzen, oraiñ erdera-antzera oiturik balin ba gaude ere. Itz-atal guziak berdiñak ditugu, iraute berdiña dute ta indar berdiña; gorabera edo tonua dute berdiñeza. Beaz, irakurtzeko, bertso silaba berdindunak egokigoak dirala esan diteke: neuria egiñagoa dutekela.

Zerbait atsedean dezazuten, irakuñiko dizuet txakur gose baten bizitza. Beti goseak bizi, ta azkenean janaldi batetik il, gantzak etxekoandrearari ta azken-atsa nagusiari ilburuko edo testamentutzat uzten zizkiela.

(1) Bi azkenak era ontara ere neurtu ditezke:

Oi le / nengoz / bere se / mea
be-so- / etan / daukon an- / drea.

MEHETEGIKO TXAKUÑA

Mehetegi'ko txakuña,
zangoz, eñajnez makhuña,
berga bat luze muthuña,
lafutik hurbil hezuña,
urthe guzia baruña,
zeren den etxe xuhuña.

Amak tikitik utzia,
esnerik gabe hazia,
tripa eñainer josia,
uliek jaten hasia,
Xurikok bere bizia
hola derama guzia.

Mahainpetik kokoriko
begira dago Xuriko,
arto-axalño bat noizko
othe zaion eroriko.
Nausiak ematen daizko
doan hortik, bi ostiko.

Xakur gaixoa holakoz,
merke hase zutelakoz
tripa utsik, ilun gogoz,
pleiñuz zagon egun oroz
hatzka zangoz ete besoz,
nihun etzauken kukusoz.

Ohoinak ere noiz nahi
hoŕen sainga ilunari
gabaz ziren hiriz hari:
«Xakur prestua hi haiz, hi!»
Gero ixiltzea sari,
jo harika gaixoari.

Egun batez baratzera
huiatzen dute lanera
doan oiño-haizatzera.....
Xakur gose ta minbera
buztana tripaz behera,
ihes doa gordetzera.

Martin, etxeko mutila
zalu, harturik makhila
haren ondotik dabila.
Xuriko, xakur habila,
lastoan ixil-ixila,
dago, alegia, hila,

Zenbeit gau egun bakhaŕez
gorde egonik herabez,
athera zen jan-behaŕez
hamikatua, negaŕez,
estalia zaragaŕez,
lakhastaz eta zakhaŕez.

Sukaldean nihor ez ta
sartzen da zakur eŕesta.

Efe'kia zen pres-presta,
zeren zen hefiko besta.
Usain, milik'eta jasta,
dena jaten du has'eta.

Etxeko andre khexua,
hor heldu da hats-hantua:
«¡Zakur madarikatua,
eia hor usu usua!
nik hauts artean barua
egik hire ordenua»

Ordenuak hau du beltza,
denen uztea bertzentza;
Xuriko'k ba daki ontsa
nori zer utzi, zer pentsa:
etxekandreari gantza,
nausiarri azken-putza.

Bizian gosez egonik,
hiltzean sobera, janik,
huna, Xuriko'k efanik,
zer entzun dugun azkenik:
gose dagonarengandik
ez daitekela lan onik.

ZALDUBI.

Geienetan, azkeneko bi itzataletan dago
berdin-erorkera; batzutan bakañean: *hantua*,

usua, *ordenua*; *bertzentza*, *pentsa*. *Ts tz'*-
rekin nasten du, *tsa* ta *tza*.

Zortzi silabako leñoika auek bi eratara
neurtu ditezke:

Mehe - tegi - ko txa - kuía

Méhete - giko - txaku - ía

Mehe - tégiko - txaku - ía

— — / — — / — — / — —

— vv / — — / — — / — '—

— — / — vv / — — / — '—

Irugañen au «Bolon bat eta bolon bi» be-
zela.

Xakuñaren bertsook ba dute mamia, bai
azala polita ere; baño beti erorkera edo bu-
kaera bat: xamuía, makhuía, mutuía, hezu-
ía. Biz batean ere naikoa zan berdin-buka-
tze ori, gure beláñi gaizki oituentzat ere. Ba-
tere bage litzake obeenik, baño ez genduke
etsiko.

Ba degu ahapaldi bat Elizanburu'k erabi-
lia, zortzi bertsoetatik, sei zortzina atalekoak
dituna: iru lenak eta iru atzenak: erdian
amarnako ta zortziko: zortziko aundiare-
nak. Bi aldetara neurtu ditezke zortzinakoak,

baño amarnakoen joera eman bear zaiē, lā-
gunengatik: daktiloarena.

Ikhus - ten du - zu goi - zean

— — — — —

ondo ez datořelarik.

Íkhusten - duzu - goize - an

— vv / — — / — — / —

joera eman bear zaio; amarnakoak ere dak-
tilo-joera artzen baitute.

etxe ti - piřo - aintzin txu - ri bat

— vv / — — / — vv / — —

(Olerki au guziz ezaguna dalako, ta ez
luzatzearen, ez degu azalduko)

Ba da beste kanta zar bat Euskalerian onen
ahapaldia bera duna. Nik asiera besterik ez
dakit. Norbaitek ba zenekite, pozik artuko
nuke.

Bi jaien bigaramona
ez da guzientzat ona:
bezperan mozkor-eguna.

Uřena bi (amařeko ta zortzikoa) ditu, ta
azkenik beste iru zortzinako.

Euskalerian egin diran bertsorik edere-
takoak ardandegirako edo sagardotegirako
edo olako zokoetarako egiñak dira. Ba da-
kartzuet bat, kantatzeko ez ezik esateko ere
ariñ-askia. Ta arintasun ori musikatik dator-
kio, oraingoan beintzat. Lau atso, Maria,
Katixa, Marixume ta Mari Martiñ, trukean
ari ziranekoa entzuteak etzaituzte aspertuko.
Zatoa ta *kuia* edo dalako ardo-ontzia ondoan
zituztela, ara nola ari omen ziran. Nere us-
tez, euskeran auek bezain bertso goxorik ez
da egin. Elizanburu'renak bide dira, edo are-
nak ez ba dira ere, izatea merezi lukete.

HERIKO BESTA BIHARAMUNA

Iragan besta biharamunian
berek dakiten xoko batian,
lau andre: hirur mutxurdin, bat alarguna,
jañirik itzalian,
hañi txabal bat belhainen gainean,
hari ziren, hari ziren trukian.

Zer othe duten nik jakin nahi
pitxarekin bertze jaun hori,
zofoa du biribila, moko mehea,
tente xutik egoki.



xahako bat (1) othe den nagon ni
hanpatua, hanpatua (2) ederki.

¡Jes! ¿Oraino zer dut bada ikhusten?
¿Zer ba hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik burua tente
xahakoa trufatzen,
bihotzez azkañago zeren den,
kuiat̄oa, kuiat̄oa hari zen. (3)

Handikan ximiko hemendik ifi,
haur batzu bezala jostetan hari,
gogotik emanen dute begi-kolpe bat
hegalpean denari;
hitz bat eñan-gogo diote safi
behañirat, behañirat, kuiari.

Seina truk dira zazpietatik,
tantoz ere bardin bi aldetarik,
xahakoa eroria mokhoz-ipurdi
naski odolaz husturik,
kuiat̄oa han dagoke etzanik,
azken-hatsa, azken-hatsa emanik.

Gezurik gabe goazen, Maria,
eman ba jokoan ezti eztia,
hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan

(1) Zaato bat.

(2) Aizatua, aizatua

(3) Kuiaioa, barnean ardo geiago zedukalako, zaatoari
burlaka ari zan.

trago bat edo bia;
bihotza dinat epheltzen hasia,
¡harek zuen, harek zuen grazia!

Zahagiaren seme joria,
¿nun duk aixtiko zofo lodia?
¡Gaixoa!, Lehen-birundan zurgatu dautek (1)
odolaren herdia.
¡Hor ago orai zimurik, aurpegia,
kokoriko kokoriko jafia!

Nahiz eta zeraukan azken-eskua,
Mariak hasi zuen gudua.
Truk.-Jo zan,-Mariak xango (2) Katixak xaldun,
Marixumek hirua,
Mari Martin xoratu zain burua;
lauarekin hiruaren kheñua.

Ago, Maria othoi, ixilik,
ez dun hik ikhusi nere kheñurik,
xorta bat edanez geroz begiek ñir ñir,
¿Zer, ez dun ahalgerik? (3)
Edan ezake azkafen hortarik,
gatilua, gatilua betherik.

(1) Lenengo bueltan txupatu ditek.

(2) Mariak xota.

(3) ¿Ez den lotsarik?

Ba zakinagu, tresna makuña,
ez dunala hik hatsa labuña; (1)
ez dun ez dionan bezala horma xurgatuz (2)
biribildu muthuña,
ez eta ere goñitu suduña,
milikatuz, milikatuz elhuña.

Apho mutxurdin, mokho bipila, (3)
¿zeren ondoan othe habila?
Hatz ba dun gibelaldean, (4) ikhusiko dun
zenbat naizen habila;
xuhur baldin ba dun (5) neska zirtzila,
ago ixil, ago ixil-ixila.

Kartak utzirik eta tantoak,
han zituzten han gero saltoak;
bakhafik hiruren kontra ¿zer eginen du
gure Martin gaixoak?
Nahiz izan azkar zango-besoak,
hartu ditu, hartu ditu paloak.

Heriko besta añats-aphalean (6)
lau gatu zahar Angelusean:
bat maingu, kirur saltoka, isorginak puies!

-
- (1) Arnasa laburra
(2) Jela txupatuz.
(3) Valiente de pico.
(4) Azkura ba den atzeko aldean.
(5) Juiziorik ba den
(6) Ilunabarrean.

zohatzila bidian;
nik ikhusi ditut amets batian,
Akhelañe, Akhelañe gainian.

Azala polita ez ezen, mamia ta gatza ta
aogoxoa ere ba dute bertso auek. Ahapaldi
bakoitzetako bi lenak, musika bera izanik,
itzatalketa ez dute berdiña; beaz, itzatal ba-
tzuei besteai baño iraute geixago eman bear.

Ira-/ gan bes-/ ta bi-/ hara-/ munian
Zer/ othe / duten/ nik ja-/ kin nahi
Za-/ hagi - / aren / seme / joria
Heri-/ ko bes-/ta a-/ fats a-/ palean

Bigañen ingurutxo'ko edo 3/4'koaren aha-
paldia ere ainbestekoa da esateko:

Aixta txikuñun txakun
enaiz eroa (bi aldiz)
xardin burua baño
obe da oiloa. (bi aldiz)

Aixta txikuñun txakun
mendian eluñ (biz)
Mari-Peparen auñ
bizkar-makuñ (biz)

Nik ba ditut anaiak
mutil galaiak
mutil galaiak,
bi ezkonduak eta
bi ezkongaiak,
bi ezkongaiak.

Erderaz *seguidilla* esaten zaion ahapaldi edo estrofa ere ontaratsu jotzen du, ta euskeraz ba ditugu beste bertso batzuk ezagunak.

Bizkaia ta Aragoa
gero Castilla;
diferentziarikan
ez dute miña,
leku zirtziña.

Nere alojatzeko
lasto txar biña,
umil umiña.
An bizi nai duena
ito dediña.

.....

An egon ba ziñake
urte batian,
bat ikusiko etzenduke
ardatza geñian
zure bizian.

Naiz iduki senaña
lañu goñian
negu-erdian:
ara zer andre diran
erdal-eñian.

.....

¡Ango sukál-baztañak
ikustekoak!
Laratzikan batere ez,
falta auspoak.
Alki sendoak:
iru edo lau añi
kintalekoak.
Ango zokoak,
ezkonduz geroztik
garbitzekoak.

Beste ardo-kopla batzuk irakuñi bear dizkizuet. Zortziko txikian egiñak daude, ta kantatu egin bear lirake; baño al dedan bezela irakuñiko ditut, eta zenbat aldetara neurtu ditezken esango det azkenean.

Senar-emazte bi ardozaleak ziran. Bein batez asañetu zitun ardoak, auzokoak ikaratzeraño. Joan zaie bat, onezkoak egitera, ta...bizkaña berotu egin zioten, besteren etxera sartu zalako.

MARTIÑ ETA KATALIÑ

Nik bi senar-emazte
ba ditut hauzoan,
egun oroz goizetik
hasiak haroan.

Martin maiz ostatura
dohakolakoan (1)
Katalin gathiñutik
hari da xokoan.

Uste baiño goiztxago
Kataliñi behin,
ostatutik etxera
heldu zaio Martin.

(1) Dijoakiolakoan.

Gathilua utzirik,
(hofek baitio min),
hasten zaio mokhoka
Martiñi Kataliñ.

—¿Hor hiza (1), horditzaña?

¿hor hiz, alfer handi?

¡A zer etxe-jalea

hartu indudan hi!

Hirekin bizitzeak

ase naik aspaldi:

hi gizon baiño, hobe

indeken zahagi.

—Hots, Katalin maitea,

ez bada hasaña,

zuk eta nik ba dugu

elgañen behaña.

Zu nere bihotzean

zinduzket bakhaña,

zu baiño eztixago

ez balitz nafaña.

—Hik iretsi nafañak

ez naik ni eztitzen,

ez hire mokhor-atsak

xutik atxikitzen (2)

(1) ¿Or aiz?

(2) Idukitzen.

—Ene hatsak, Kataliñ, gizona bihurtzen da
ez hau hi izitzen: oro aurdikika (2)
gañatxagorik diñat emaztea dakion
nik hiri sentitzen. hanxet belhaunika:
Kataliñ hasten zaio buruko iñetarik
erkhartz-ukhaldika (1) herestan dabilka.

«¡Hel, hel, hel», deadañez
Kataliñ hasirik,
banoakote lotsaz (3)
izan dadin hilik,
othoi, hots, egon diton
geldirik, ixilik...
Biek naute kanpora
igoñi hezirik.

ZALDUBI.

Zortziko txiki au, gutxienaz bostetara
neurto diteke musikaren ariora.

1) Auñeneko zortzikoa bezela

— / — — / — — / — —

2) *Nere emaztea da* bezela

— vv / — — / — —

(1) Eskoba-kolpeka

(2) Arrapatzen dun guzia botatzen:

(3) Banoakie bildurrez.

3) *Txin txibiron Camino* bezela

— — — / — vv / —

4) *Goñitiko mutilak* bezela

— vv / — — / — (vv) / —

5) *Beltrak eta txuriek* bezela

— — / — — / — — / —

Zortziko auen musika ipintzea ondo litza-ke, baiño luze joko luke. Gogoan iduki, len esan dedan bezela, leñotxo onen (—) balioa edo irautea, alde-aldera, musikako *negra*-rena dala, ta (v) ren balioa kortxearena.

Bedi:

1) Uste baño goizago

Kataliñi behin

ostatutik etxera

heldu zaio Martin.

— — / — — / — —

— — / — — / —

— — / — — / — —

— — / — — / —

2) Nere emaztea da,

Angela du izena,

edale bizkoña da
guzia mozkoña.

— v v / — — / — —
— — — / — — / —
— v v / — — / — —
— — — / — — / —

3) Txin txibiron kamino
eztaukat dirurik
iru alaba dauzkat
ezkondu bagerik (1)

— — — / — v (v) / —
— — — / — — —
— — — / — v (v) / —
— — — / — — —

4) Goñiti'ko mutiak
Uitzin galdetzen
ia lizar gaztiak
no (la) diran aldatzen.

— — — / — — / — (— —) —
— — — / — — / —
— — — / — — / — (— —) —
— — — / — — / —

(1) Onek beste musikaririk du Gipuzkoa'n. Naparroa'n bigarren ingurutxoarena du.

5) Beltzak eta txuriek
mendien ardiek
zuk ere (y) ez dituzu
bentaja guziek.

— — / — — / — — / — (—)
— — / — — / — (—) / —
— — / — — / — — / — (—)
— — / — — / — (—) / —

Oraindik beste neurbideren bat asmatu al diteke, baiño musikari gagozkiola. Onek adierazten digu, neurkera ori ez dala izketarena berarena: mintzaerak berak ez daka-
rela. Izkuntzak dakaenez, neurri bat besterik ez du zortziko onek: zazpi silaba seirekin, biez [batean. Latiñeko *distiko* edo *bileño* ka'ko arek ere, etzun, eskuarki, neurbide bat besterik. Dadukagun gañera gogoan, latiñaren silabak berenez beren irautea zutela, ta iraute ori etzitekela aldatu maiz, nik euskerazkoekin egin dedan bezela. Banaka batzutan bai, silabari bertsoan toki au edo ori gertatzen zitzaiolako, baiño ez eskuarki edo geienez. Gureak ordea iraute berdiña dute, Navarro Tomas'ek adierazi digun be-

zela. Beaz, euskeraz egiñik dauden zortzi-koak, bein beingoarekin, aldian aldikoarekin neurtu-beařak dira.

Zortziko aundiak eta txikiak ez dirudite lenengo begiratura elkařen antza aundia dutenik, baña musika berdiña edo *compás* berdiña beintzat artzen dute. Gipuzkoa'n asierako zortzikoan kantatzen da:

Alpargatak uřatuta
zapatarik ez,
Bermeo'n gelditu nintzan
oñeko miñez.

Napařoa'n, beriz, saltokakoan edo zortziko aundiarenean dantzatzen da. Ahapaldia edo estrofa bera ere, laburtzapen eta ixilgune batzuk gora bera, berdindu diteke, baiño au adierazteko betarik ez det. Uřengoen baterako utzi bearko.

Norberak asma ditzake ahapaldi bakoi-tzagoak, aukeragokoak, joera bateko bertsoak beste joeradunakin nasi gabe edo nasita. ¡Ondo irakurtzen lana! ¿Zortziko bi oien menpetik aterako ote gera noizpait

ere? Ez det esaten, aufera ez erabiltzeko, erabat uzteko; egokiak baitira noiz edo bein, mintzatzeko gaitzago ba dira ere. Zortziko nagusian egiñik daude euskeraz egin diran bertsorik edefenak; esaterako, *Solferino'ko itsua* ta *Egun bereko alharguntsa*:

«Nihoiz enetzat ez da yeikiren
zeruko argi edeña...»

ta:

Goizian goizik yeiki ninduzun,
espostu nintzen goizian,
bai eta ere zetaz beztitu
ekhia yali zenian; (1)
etxekandere zabal ninduzun
hameka orenak yotzean,
bai eta ere alarguntsa gazte
ekhia sartu zenian.. ..

Arese ta Beita'k, Karmelo Etxegarai'k eta bizi dan Arese'k ere, neuñi oretan eman digute bertso ederik aski. Ez det ukatuko; baño neuñi ori, an eñen, or trinkin, emen oztopo dabilela iduri zait. Izketak berak daka-

(1) Eguzkia sortu zanean.

rena bezelako mintzorik edo prosodiarik ez da. Beaz, neurtitzetan, izketari dañaikiona edo izketaren ondoagokoa ta edeñagoa, gerko-latiñen *logaedikos* bezela; *solaskara* edo izketa-antzekoa. Kantarako berdin da nolanaikoa ere. Gaur ordea, bertsoak esateko edo mintzatzeko oitura ari degu, lengo oitura zaar edeña utzita.

Bertsoa, ibiltzeko bide baten antzera jo diteke. Bide zelaiean, berez eñen ez dagona, yayo dabil; baño emen bide oñek noizpenka zulogune batzuk baldin ba ditu, ta anka bati berari egokitzen ba zaizkio beti, berez eñena izan bage, nai ta nai ez anka arekin eñenka ibili beaña dauka, ondo neurtutako eñena ta aldizka berdiña ba da ere: eñena beti eñen. Orobat, leñoxkan ipintzen ditugun itzak, ez dute berenez eñenik, baño zenbait leñoxkatan ipiñi nai ditugunean, eñen egiñerazten diegu.

Baño gaurko neurtitzok ba dute trinkin egite ori ez beste okeñik. Azentu indardun ori, gutxi edo asko beaña da bertsoak neurtzeko edo irakurtzeko, edo ori gabe nekez

irakuñi ditezke gure bi zortzikoak; baño azkeneko silabaetan berdin-bukatze ori ¿nondik sortu da? Tartean bear du bertsoak neuria, tartean; eta azken ori, tarte bat besterik ez da; askotan bertsoa zatitu baititeke andik edo emendik. Azkenean ez dago buruz malda jo-beañik.

Berdin-bukatze onen kontra ari nindeke neke bage, baño onozkero aspertzeko garaia ere ba dezue. Euskeraz eta erderaz ere diran bertsorik ederenak oñek itxusten ditu. Gure belañiak, ordea, ortara jañirik daudela esango didazue. ¡Mingañi da! Itzen berdin-bukatze ori, bilatzen aritzea baño ez aritzea obe ta eñezago da; ta leñoxka aldioro baño biz batean eratsuago; ta silaba berdiña baño berdintsua eñazago; ta bi silabetan baño batean eñazago; ta silaba osoan baño azkeneko vocalean eñazago. Entzun napar-ardoarena:

A, a, a,
ardo goñi napaña,
alimentu ona da,
edan al baldin ba da;

A, a, a,
ardo goñi napaña.

E, e, e,
ni ardoaren alde;
edan ardura gabe
baldin ba da debalde;
E, e, e,
ni ardoaren aide.

I, i, i,
ardoak gaitu bizi;
noizik bein ongi busti,
edan gabe ez utzi;
I, i, i,
ardoak gaitu bizi.

O, o, o,
au biontzako dago;
edan dezagun oro,
zuk orain ta nik gero;
O, o, o,
au biontzako dago.

U, u, u,
ardoak galdu gaitu;
geiegi edan dugu,
luña igaro dugu;
u, u, u,
ardoak galdu gaitu.

Neurtitz arau au eñaza da, baño oraindik
ere azken-berdintzerik ez ba lu, areagoa

3500

4/8

litzake. Aspaldiko gerko-latiñak, len esan dedanez, etzuten oñetara jo-beańik, eta markar aundia zerizkioten bertsoan berdin bukatze oñi. Baita gaur bertako erderan ere itz askatuetan ari dirala. Gu ere oitu gindezke, tarteko neuria ona izan ezkeru.

Oihenarte'k, Zaldubi'k, Elizanburu'k, ba ditute ala-olako bertsoak, azalari begiratuta ere; ba ditute ahapaldi politak. Bakoitza saia bedi oñelakoak edo bestelakoak egiten.

Luzatu egin naiz, baño gai au al danik laburkiena ukitu det. Lan osoagoa gero egin bearko, edo besteren bati utzi bearko.

Gipuzkoar bertsolari gazteak: auñera, nere esanak gora bera. Bakoitzak nai duna egin beza. Adiskide aundi batzuei atsegiñ emateagatik aukeratu det gai legor au. «Eñorek siñisten ez ba dek ere, dakikana esaiguk».

Or bada esanik.



16

ITZALDIAK

4'g sala

- 1: Anabitarte'tar A: *Antziñako olinpiar jolasak.*
- 2: Lañañaga'tar P.: *Arate.*
- 3: Lañañaga'tar P.: *Arate.*
- 4: Julia F. Zabaleta: *Emakumien etorkizuna.*

5'g sala

- 1: Olaizola'tar Joseba'ren itzaldia: *Txistu ta txistulariak*
- 2: Zinkunegi'tar Joseba'ren itzaldia: *Kirolak jongile ala kaltegar?*
- 3: Mokoroa'tar Justo-Mari'ren itzaldia: *Euskeraren etorkizuna.*
- 4: Inazio Artetxe'ren itzaldia: *Sendakintza gizadiyetan zear.*
- 5: Lañakoetxea'tar B. J.'ren itzaldia: *Gorbaie'ko gaxtagintzea.*

Argiak, ezezak eta nornaik irakurtzeko aukerazkoak dira itzaldi oek. Gañera beñiz, txukun, apain eta arduraz argitaratuak daude.

Sail bakoitza: 2 PESETA

Itzaldi oek salgai dauzkaten etxeak: Imprenta de Martin y Mena (San Marcial, 23). Librería de Leizaola (Gari-bai, 28), biak Donostia'n. Eta Bilbo'n beñiz: Emeterio Verdes (Correo, 9).

EUSKALERRIAREN ALDE

Revista de cultura vasca

Historia — Bibliografía — Arte — Literatura — Idioma vasco — Grabados — Números especiales — Obras encuadernables — Certámenes histórico-literarios en castellano y euskera, con más de tres mil pesetas anuales de premios.

Pedir referencias y números de muestra a la Administración: Imprenta de Martín y Mena (San Marcial, 23), San Sebastián.